

hiruka

210. zenbakia
2024ko iraila



URIBE KOSTA JAIETAN

Udako aje gozoa

Getxo Xenofobia

Arrazakeriaren amua irentsi al duzu uda honetan?

12 | Herriak

Leioa Kantika



«Espresio artistikorik sakonena»

33 | Kultura

Lemoiz Herri-izaera

«Aurten, kosta jaku txikiak palan hastea»

37 | Kirola

IRAILA

MUSIKA



GETXO FOLK: 40. URTE

Maddi Oihenart, Agus Barandiaran,
Juan Mari Beltran, Leturia, Verde Prato,
Olaia Intziarte

IRAILAK 15 IGANDEA
20:00/20 €

MUSIKA



ARENE 6 Bereiziezinak

IRAILAK 27 OSTIRALA
21:00/6 €

ZIRKUA



LEINU

Berdinki Zirku Garaikidea
'Juana Bizkarra' 3. Egonaldi Artistikoko
proiektu irabazlearen aurrestreinaldia

IRAILAK 19>20
19:30/gonbidapenez

MUSIKA



KANTU BERRI BAT GARA Jon Maia

IRAILAK 28 LARUNBATA
20:00/12 €

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Hirudika: Udako jaiek utzitakoak
- 12 Herriak
- 22 Agenda
- 23 Lehen/orain eta Uribitakora
- 24 Gehigarri berezia: Hezkuntza
- 32 Veva Linaza, *Rondó* liburua
- 33 Basilio Astulez, Leioa Kantika Korala
- 34 Iritziak eta Horoskopoa
- 36 Kirolak
- 38 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 40 Faceguk: Zein da udako abestia?
- 42 Aitormenak: Ana Arsuaga-Verde Prato
- 43 Zozketak



«Txipa aldatu genuen, auzoa dinamizatzeko»



«Dena hasi zen zuhaitz pean eta horien itzalekin jolasten»



«Musikan dabilzan pertsona guztiak kantatu beharko luketela uste dut»



«Agertokirik onena da jendea guztiz gozaten ikusten dudana hori»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Jokin de Pedro, Arantza Gutierrez, Lizar Begoña eta Jondalar Sota

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Getxo
bizi ezazu



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua



Sopelako Udala



Plentziako Udala



Urdulizko Udala



Gorlizko Udala



Barrikako Udala



Lemoizko Udala

 **Bizkaia**

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Hatz

JOKIN DE PEDRO Idazlea



Eskarak oraintsu arte izan duen ahozko transmisioari eta *in situ* duen antzinasunari esker, haren berba zaharretan altxor harrigarriak aurki ditzakegu, hitzon azterka eginez gero. Hitz horietako bat «hatz» dugu. Iparraldean oraindik ere jatorrizko adierari eusten dio: (h)aztarna, arrasto9.

Goazen euskaldunok ehiztari-biltzaile ginen garai urrunera. Ehizakien hatzei jarraitzea eguneroko zeregina zen, noski; halandaze, oreinen (h)atz-ean, ibiltzen ginen, edo bata bestearen (h)atz-ean. Hortik sortuko zen egungo atze postposizioa. Eta hizkuntzan maiz gertatzen den eraldaketa bat baliatuz, efektua objektu bihurtu zen, alegia, hatz/arrastoak hatz/atzamar esangura bereganatu zuen.

Eta, hori baino lehenago, zelan esaten genion atzamarrari? Er(h)i, jakina! Iparraldean gaur ere erabiltzen da ele hori, eta Hegoaldean fosilduta ageri zaigu erpuru eta eraztun berbetan.

Horrenbestez, badakigu gaur zergatik darabilgun oinatz eta eskuatz; baita hatz eriarri esateko eta behatz oinetako eriarri... Baina, zer ote da Bizkaiko (h)atzamar txanbelin hori? Ez luke gutxienez hamar-atz beharko, ohiko sintaxia aintzat harturik? Hurrengo baterako utziko dugu haren jatorriaren misterioa argitzea.

Estigma

ARANTZA GUTIERREZ PAZ Polimilitante feminista



Nola erreakzionatu auzoko batek iruzkin arrazistak egiten dituenean? Duela urte batzuk, parte hartu nuen zurrumurruen aurkako inizatiba baten formakuntzan eta hortik aurrera arrazakeriaren aurkako diskurtsoari aurre egiten saiatzen garen Getxo Antiarrazista taldean nago. Hala ere zenbaitetan isilik geratzen naiz, eztabaidatu nahi ez dudalako.

Duela egun batzuk, berriz, parean nuen auzokide batek eskumak eta bere esparru ideologikoko medioek zabaltzen dituzten *fake-news* direlakoak zituen argudio bakarrak, eta banan-banan desmuntatzen saiatu nintzen arren, bere begietan ikusi nuen berdin zitzaiola azaltzen zuena egia zen hala ez, eta zenbaitetan esaten zidan hori nonbait «entzuna» eta «irakurria» zuela, edo «norbaitek ezagutzen zuen pertsona batek...», hau da «eskuliburuko» oinarririk gabeko argudioak. Eztabaida antzua. Etsita, amore eman nuen.

Argi dago batzuek arrazismoaren amua irentsi dutela, eta oso zaila da horren aurrean ezer egitea, hain errotuta baitago. Horregatik eredugarria iruditu zait Getxoko jai-batzordeek eta gazte talde batzuek udan bultzatu dituzten ekimenak migratzaile gazteen kolektibo batek pairatzen duen estigmaren kontra borrokatzeko, elkarren ezagutza baita argudiorik onena.

Puntua eta kontrapuntua **Ikasturte berriaren hasiera**

Eskolara buelta



*Hamaikatxo liburu,
estutxe, karpeta...
apaletan gorderik,
dena hautsez beteta.
Orain tokatzen zaigu
ohiko «reset»-a.
Kontaiguzu ba, Unai,
uda badoa eta:
nola oroitzen duzu
eskolara buelta?*

JOSU
ARROYO
IZKOA
Algorta



*Udan aldatzen zenez
kanpo eta barren,
ea ikaskideak
ze berri zekarren.
Oporretan hobeto
omen geuden arren,
beti esaten nuen
«ez dut joan nahi, arren»
triste plantetan, baina
barrutik pozarren!*

UNAI
MENDIBURU
VALOR
Algorta



Jon Fano Radio Club Takolos kultur elkarte

«Txipa aldatu genuen auzoa dinamizatzeko helburuagaz»



Irratizale talde bat bezala sortu zuten arren, gaur egun, Astrabudua dinamizatzea da Radio Club Takolos elkartearen zeregin nagusia.

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Jon Fano izan zen duela 25 urte kluba sortu zuen kideetako bat. Azaldu duenez, 1999an, Astrabuduko jaietako kuadrilla batean zeuden irratizale batzuk batu eta elkarte sortu zuten. «Distantzia luzeko hartu-emanak egiten genituen; adibidez, Trabudu Dantza Taldeagaz aktibazio bat egin genuen eta hiruzpalau abesti bidali genituen uhinetara. Beste bat egin genuen Euskaltel Euskadi txirrindularitza-taldeak Tourreko etapa bat irabazi zue-nean, eta bien artean 150 herrialdeetara eta mundu osoko 600 operadore ingura heldu ginen».

Gaur egun, teknologiaren eraginez, hori guztia ia desagertuta dagoela dio Fanok, baina talde-izaera oraindino mantentzen dute, eta Astrabuduan egiten diren ekin-

tza ia guztietan parte hartzen dute. «Txipa aldatu genuen, eta bestelako kontuetan sartu ginen auzoa dinamizatzeko helburuagaz». Hala, taldea osatzen duten 30 kideek ha-maika jardueratan aritzen dira hilero. Batez ere, ekintza solidarioak, gastronomikoak edo umeei bideratutakoak dira, eta udan atseden hartzen dute, ikasturtean zehar ia aste-akabu guztietan daukatelako hitzorduren bat, auzoan, Altzagan edo inguruko beste udalerrietan. Beraien jairik berezienak uda hasieran eta amaieran antolatzen dituzte: maiatzean, elkartearen urteurrena ospatzen dute, eta, irailean, Takolo Eguna. Aurten, irailaren 28an jarri dute horretarako hitzordua, nola ez, Astrabuduan.

Fanok azpimarratu du elkartearen izaera eta zeregina oso lotuta daudela auzoagaz: «Ni Astrabuduan jaio nintzen, nire aita eta nire ama ere hemengoak ziren eta nire seme-alabak ere hemen jaio eta bizi dira. Jende jatorrez betetako auzoa da, eta data bat jartzeagaz nahikoa izaten da herritarrak antolatzeko eta mugiarazteko. Oso auzo dinamikoa da eta bizitza asko dago elkarte guztiek antolatzen dutelako zer edo zer aste-akabu guztietan». ◀



Bizipoza

Uda bukatzean dago, baina jaietako oroitzapen gozoek hor jarraitzen dute: zenbat barre, esperientzia, elkar aurkitze eta biharamuneko aje... HIRUKAn ere poztasun horretan murgildu gura izan dugu eta, hala, jairik jai ibili gara hilabeteotan Uribe Kostako herri eta auzoetan. Bizitakoaren lagin txiki bat dakarkizuegu orriotara, baina hiruka.eus atarian eta gure sareetan gura beste argazki eta bideo aurkituko dituzue. Goza itzazue!

TESTUAK: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIAK: HIRUKA



SOPELA da udako jaiak ospatzen lehenengoetakoa. Nola ahaztu sanpedroak edo Larrabasterrako festak? Badirudi iragan urruneko gauza direla, baina hilabete bi besterik ez dira igaro ordutik. Lasai, gero eta gutxiago falta baita berriz ere txupinaren suziarik festen hasiera iragartzeko eta herriko kaleak kolorez eta giroz betetzeko.



LEIOAko jaiak berriz elkartzeko eta lagun zaharrak batzeko hitzordu ezin hobea dira. Aurtun, kuadrillen jaitsierak marka guztiak hautsi zituen, jaiön osasun onaren erakusle.



BARRIKA herri txikia izan arren, barrikoztarrek eta elkarteek zuku guztia ateratzen diete festei. Suaren inguruan batuta, ez dago udari ongiatorria emateko hitzordu atseginagorik.



GETXOko jaia Aixerrotako paellakaz hasi eta, etenik gabe, etenez auzo mugitzen doazen ospakizunen segida baten modukoak dira: saninazioak, Itzumbaltzeta/Romo, Portu Zaharra... Aurten ere, jaiek inori hutsik egin ez dioten arren, sexu-erasoen gaitza deitoratu behar izan dugu beste behin ere. Halako albisterik argitaratu behar ez dugun egunean bai, orduan izango dira guztion jaia.



URDULIZko jaia oraindino ez dira bukatu lerrook idazteko orduan. Aurten, irailaren 6tik 15era ospatuko dituzte eskualdeko festen segida eta udari agur esango dioten andramariak.





ERANDIO izan da aurten pregoi aldarrikatzaileenetako bat utzi digun udalerrria. Altzagako San Agustin jaietan, Lasy Philiss arduratu zen gogoratzeaz gure udalerrietan hamaika koloretako pertsonak daudela eta guztiak errespetatu behar direla: berdin dio euren sexu-izaera edo jatorria.





BERANGO hazten ari den udalerrria da, eta ohitura batzuk galzorian daudela iruditu arren, belaunaldi berriak horien alde egiteko prest daude; haien eskuetan dago jaien nortasuna bermatzea.



GORLIZek ere gura beste ospakizun dituen udan zehar; bakoitza bere jazaera propioagaz eta gustuen arabera. Uresarantzako jai herrikoiak eta landatiarrak izan dira aurtien gehien disfrutatu ditugunak. Eta zuk?





LEMOIZen itsasoak, lurrak eta musikak bat egiten dute. Askok Txapel Reggae jaialdia ezagutuko dute, baina udalerriko jaiak hori baino askoz gehiago direla erakutsi dute lemoiztarrek Armintzan eta Urizarren.



PLENTZIAK ere hamaika ospakizun ditu udan zehar, baina berezienen artean berezienak dira San Antolin jaiak. Bizi-bizi mantentzen den tradizioari eutsiz, madalentuak eta antolintxuak izan dira aurten ere jaietako ikurrak; hala ere, zalantza barik, protagonistak Plentzia eta plentziarrak izan dira.

Uribe Kosta Gorroto-diskurtsoa eta segurtasuna

«Ni ez naiz arrazista, baina...»

Azken hilabeteotan, gure kaleetako «segurtasun eza» aitzakia hartuta, ugaritu egin dira kalean, eta bereziki sare sozialetan, zabalduak mezu arrazista eta xenofoboak. Baina, zer dago benetan diskurtso horren atzean? Eta nola bizi dute egoera hori pertsona migratzaileak?

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **IKER RINCON MORENO** ▶

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren hainbat auto aparkatuta Algortako erdigunean, Telletxe plazaren erdian, metro-geltokiaren parean. Dozena bat polizia, oihuka, eta pertsona bi atxikita lurtean. Biak arrazializatuak eta gazteak. Magrebtarrak, kale egoeran bizi direnak. Inguruan jendea, isilik, begira: «Zerbait egingo zuten horrenbeste polizia egoteko...», ahopean marmarka bata besteari; «bozkatutakoa gozatu!», beste batek guztiei, keinuka eta oihuka horrek, aurreiritziz betetako bat-bateko epaiketa eginez.

Azken hilabeteotan, eszena hori behin baino gehiagotan errepikatu da udalerriko hainbat puntutan, segurtasunari lotutako kezkarri «erantzun bat» eman guran; batzuetan, arrazoiz; bestetan, ausaz. Izan ere, Getxon, eta bereziki Algortan, izandako liskarrek eta lapurretek, eta hainbat hedabidek eta alderdik zabalduak mezuak, segurtasun faltaren sententzia handitu dute inguruan. Sare sozialetan, gainera, diskurtso hori are gehiago hauspotu da, egoeraren erantzule gisa jatorri magrebtarra duten gazteak seinatuz eta horien aurkako jarrerak eta mezuak areagotuz.

Kaleko delinkuentzia immigrazioagaz lotu ohi da, zenbaiten ustez, pertsona migratzaileen presentzia gero eta handiagoa denean delituak areagotzen direlakoan. Hala ere, adituek ohartarazten dute ezinezkoa dela alde biak erlazionatzea; are, azpimarratzen dute etorkinen kopurua handitu den arren, delinkuentzia-tasak nabarmen egin duela behera. Ildo horretan, azkenengo datuei erreparatu gero, Getxon, barbarako, ebasketa delituak ia % 8 txikitu dira aurtengo lehenengo seihilekoan, Ertzaintzak emandako datuen arabera. Indarkeriazko edo larderiako lapurretak, aldiz, areagotu egin dira, 30 kasutik 49ra udalerririk horretan. Erregistro horrek ez du zehazten delitugilearen jatorria, baina ez dira gutxi ateoan bati seinatatzeko, mantra bat balitz bezala errepikatuta: magrebtarrak, denak zaku



«Hasieran, arazoak nituen hizkuntzagaz, baina apurka jende berria ezagutzen ari naiz, eta hori garrantzitsua da»

ABDELILLAH OUADI
GAZTE MIGRATZAILEA



«Erroldatuta egoteak ikastea ahalbidetzen dit. Gazteak gara, ikasi gura dugu eta etorkizun on bat bilatu»

DAOUD OUACHOUACH
GAZTE MIGRATZAILEA

berean sartuta. Sare sozialetan bolo-bolo zabalduak dira akusazio horiek, hainbat politikaririk euren diskurtsoetan txertatzen dituzte eta hedabideek horien ideiak errepikatzen dituzte.

Ana Elena Altuna Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) plataformako kideak uste du mota horretako diskurtso eskuindarra instituzioetan sartu dela bete-betean eta, ondorioz, komunikabide batzuek horiek islatzen dituztela: «Inolako lotsa barik bota eta publikatzen dituzte mezuok». Horri jarraituz, gizartearen sektore batek bere egin ditu ideia horiek, gazteak barbarako, «diskurtso ofizial baten kontra egitearren» nolabait, «askotan, gainera, jakin barik zer den arrazista izatea. Izan ere, gizartea, nahi ala ez, gero eta dibertoagoa da, eta askok Iñaki eta Niko Williams dituzte erreferentziatza. Beraz, zer dago botatzen dituzten esaldi horien guztien atzean?», dio.

SEGURTASUNAREN AFERA. Martxoko Soziometroaren arabera, Bizkaiko herritarren % 89k uste zuen bere herria segurua zela. Delituen zenbatekoari dagokionez, Ertzaintzako datuei begiratuta, aurrean, ekainera bitartean, arau-hauste presentzialak kasi % 1 murriztu ziren Getxon, Uribe Kostako udalerririk jendetsuenean; are, EAeko udalerririk handietako delinkuentzia-tasarik txikiena du Getxok: 10,64koa 1.000 biztanleko –Bilbokoa 27,54koa da—. Hartara, orokorrean, delituek behera egin dute, baina segurtasun gehiago eskatzen dutenen oihartzuna handia da. «Inbertsio garrantzitsua egiten ari dira halako mezuak zabalteko, errealtatea benetakoa baino okerragoa dela eta, errudunak bilatu nahian, inbaditzen gaituztela pentsarazteko», salatu du Altunak.

«Zer da, bada, segurtasun eza?», galdetzen du ekintzaileak. Aitortzen du lapurretak egon badaudela kalean, baina gogoratu du bestelako delituak ere badaudela, hala nola egunero jendea bere etxebizitzatik kanporatzen dituzten putre funtsek egiten dituztenak: «Horretaz ez da ezer entzuten, eta horiek bai dira lapurretak, gizartea zuzenean kolpatu eta



Gorroto-mezen aurrean, jende asko kontzientziatu da gure inguruan.

eraldutzen dutenak. Boteredunek nahi dutenari seinalatzen diote, jendeak alde horretara begiratzen duen bitartean eurek negozioak egiten jarraitu ahal izateko».

KOPLA-BURUKOAK, MAGREBTARRAK. Lapurreta bat kalearen erdian; labankada bat pasealekuan; borroka bat plazan. Sareak borborra, inolako testigantzarik eta ziurtasunik gabe errudun bat seinalatzen: gazte migratzaile magrebtar bat. Egunerokotasuna bilakatu da edozein ezbeharraren aurrean halako akusazioak topatzea han eta hemen. Abdelillah Ouadi eta Daoud Ouachouach gazte marokoarrek ondo dakite zer den hori: «Zerbait txarra gertatzen denean, sareetan gehienetan zabaltzen da marokoar batek egin duela, eta askotan gero ez da horrela. Askotan penatzen gaitu horrek». Ouadik aitortzen du bere aberkideen artean «jende txarra» dagoela, «baina edonon bezala, eta oso gutxi dira, nahiz eta denok zaku berean sartzen gaituzten».

Ouadi eta Ouachouach urtebete baino gehiago daramate Getxon. Gaztelera ikasten ari dira San Nikolas Zabalik elkarteari esker, eta laster ikasketak abiatuko dituzte. Aitortzen dute hizkuntza dutela zailtasun handiena gizarteratzeko, baina egindako lanari esker, apurka-apurka, gero eta jende gehiago ezagutzen ari dira. Ildo horretan, gogoratzen dute udalerriko udako jaietan parte hartu dutela aktiboki, baita urtean zehar Getxon dauden hainbat ekintzetan ere, hala nola irai-

Laguntzeko beharra

«Jende 'ona eta txarra' egon daiteke, baina ulertu behar da ez direla txarrak 'berariaz', eta lagundu behar zaiela, ez dakigulako zer arazo duten atzean»

AYOUB MAZAR
GAZTE MIGRATZAILEA ETA
GIZARTE LANGILEA

Eskubideak, denontzat

«Atzerritartasun legea ez da berria, eta horrek markatzen ditu migratzaileen bizitzak guztiz, bai bizitzan bai lan arloan, askotariko mugak ezarritik, besteak beste»

ANA ELENA ALTUNA
ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK
PLATAFORMA

laren 29an, domekan, Algortan izango den Munduko Arrozak jaietan: «Oso ona da guretzat halako ekimenetan parte hartzea, jendea ezagutzeko, gu ezagutarazteko eta hizkuntza praktikatzeko bide egokia delako».

Hala ere, azpimarratzen dute bidea ez dela erraza izan, Marokotik gurera etortzeko bidaia zaila izateaz gainera, Euskal Herrira heltzerakoan kale gorrian bizi behar izan zirelako, Atzerritartasun Legearen ondorioz. «Kalean bizi nintzenean, zikin nengoen, ez nuen lekurik arropa garbitzeko eta jendeak gaizki begiratzen ninduen, lapurreta egitera nindoalakoan», deitoratzen du Ouadik; «kalean gaudenean, jendeak aurreiritziak ditu gure kontra, lapurrak garelakoan», gaineratzen du bere lagunak. Hala ere, orain, San Nikolas Zabalik elkarteari esker, Algortako apaiz-etxean bizitzeko aukera dute, eta bertan erroldatuta daude, horrek dakartzan abantaila guztiakaz. «Horri esker, garbi eta osasuntsu gaude, eta ez dugu inolako arazorik jendeagaz», azpimarratzen dute. Ildo horretan, biak bat datoz esaterakoan Getxo oso herri harreragilea dela, «oso eskertuta gaude».

AURRERA EGITEKO ZAILTASUNAK. Ayoub Mazar ere marokoarra da, eta San Nikolas Zabalik elkartearen gizarte langilea eta gazteen laguntzailea. Dienez, arrazakeriaren fokua Afrikatik etorritakoengan jartzen da, besteak beste, gurera migratzerakoan behartuta daudelako kalera bizitzera lehenengo hilabeteetan, beste migratzaile askok ez bezala: «Une horretan oso agerian zaude, arriskuan, eta egoteko, garbitzeko eta bizitzeko ziurtasunik gabe». Jatekoari dagokionez, azaltzen du jantoki sozialak daudela, baina horietara joateko itxaron-zerrenda izugarri handia dagoela edonon. Ouadik, berbarako, lau hilabete itxaron zituen jantoki sozial baterako bonua eskuratzeko.

Mazarrek deitoratzen du kale-egoeran dauden gazteek zailtasun ugari dituztela, eta egoera gero eta okerragoa dela haientzat. Aitortzen du jende «ona eta txarra» egon daitekeela, baina ulertu beharra dagoela ez direla txarrak «berariaz», eta, hartara, lagundu behar zaiela, «ez dakigulako zer-zelako arazoak dituen atzean». Era berean, nabarmendu du gurera datozen gazteak balio handikoak direla Euskal Herriarentzat, aukerak emanez gero, lanerako prest daudelako.

EZAGUTZA GIZARTERATZEKO. Gorroto-oldearen aurrean, hiru marokoarrek bat datoz garrantzitsua dela elkar ezagutzeko. Hala, Mazarrek azaldu du proiektu bat dutela gazte migratzaileen historiak ezagutarazteko, aurreiritziak baztertu eta hausnartzeko. ◀

Getxo Mesedeetako jaiak

Udako festei amaiera emateko traka, Areetan

Irailaren 20tik 22ra bitartean, udari agurra eta udagoienari ondoetorria egiteko jaiak izango dira Areetan.

A tzerako kontaketa hasi da Areetan. Abuztuan buru-belarri aritu ostean, bertako jai-batzordeak dena dauka prest Mesedeetako festei hasiera emateko. Taldea 16 gizon-emakumek osatzen dute eta, aitortzen dutenez, urtero zaila egiten zaie jaiok antolatzea, «abuztuan ezinezkoa delako ezer kontratatzea; beraz, irailera lehenengo astean ibili behar gara arinekan», diote.

Data esanguratsua dute ospakizunok, udari amaiera ematen baitiete. Hori horrela, jai-batzordeko kideek aldi horri «modu alai batean» agurra egiteko egitarau ahalik eta zabalena antolatzen saiatzen direla adierazi dute, adin guztiei begira. Hala, txikienez hamaika jardura izango dira auzoan gozagai, baita adinekoentzako luntxa ere. «Gazteak ere ez ditugu ahaztu, eta gerria asintzeko hainbat kontzertu ere antolatu ditugu», iragarri dute.

Festetarako prestatutako ekitaldi guztien artean, domekan izango duten hitzordua nabarmendu dute: Barraskilo Lehiaketa, «tradicio handikoa gure jaietan. Espero dugu aurtengo ere arrakastatsua izatea». ◀

Egitaraua

Irailak 20, barikua

- 13:00** Luncha adinekoentzat, Eskoletako plazan.
- 17:00** Zezen mekanikoa, Eskoletako plazan.
- 18:00** Motx pailazoa, Eskoletako plazan.
- 19:30** Txupinazoa eta pregoia, Eskoletako plazan.
- 20:00** Areetaolimpiadas - Haurren Jokoak, Eskoletako plazan.
- 21:00** Bingo, Eskoletako plazan.
- 21:00** Kontzertua: Delincuencia Senil, Laguntasuna kalean.
- 22:30** Kontzertua: Los Toldos, Eskoletako plazan.
- 00:30** Remember Time, Eskoletako plazan.

Irailak 21, zapatua

- 10:30** Puzgarriak, Bizkaia Zubia plaza.
- 11:00** Arrantza Lehiaketa, Bizkaia Zubiaren inguruan.
- 12:00** Fanfarria Marching Band Getxo, ibiltaria.
- 12:00** Sardina-jana, Eskoletako plaza.
- 13:30** Herri kirolen erakustaldia, Eskoletako plaza.
- 17:00** Ile-apainketa, pultsera, txapak eta giltzakoak Tailerrak, Eskoletako plazan.

- 16:30** Puzgarriak, Bizkaia Zubia plaza.
- 17:30** Dantza Plaza - Berantzagi Dantza Taldea, Eskoletako plazan.
- 18:30** Dantza Erakusketa - Vivó la Danse, Eskoletako plazan.
- 20:30** Bingo, Eskoletako plazan.
- 22:30** Areetako Sound Gaua: Galker, Eskoletako plazan.

Irailak 22, domeka

- 08:00** Barraskilo Lehiaketaren izen-ematea, Laguntasuna kalean. Aurkezpena, 13:00etan.
- 10:00** Artisautza Azoka, Eskoletako plazan.
- 11:00** Tortilla-lehiaketaren izen-ematea, Eskoletako plazan. Aurkezpena, 13:30ean.
- 12:00** Show Magia, Eskoletako plazan.
- 12:00** Mugikortasunaren Eguneko jarduerak, Xake plazan.
- 12:30** Paella-jana, Eskoletako plazan.
- 12:30** Zumba Solidarioa, Eskoletako plazan.
- 13:00** Herri-bazkaria, Eskoletako plazan.
- 17:00-18:00** Sari-banaketak, Eskoletako plazan.
- 17:30** Zirku Erakusketa La Fabrik-en eskutik eta txokolate-edana, Eskoletako plazan.

JUAN MARI

Harategia  Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25


GetxoGas



Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Getxo «Irurak Bat» eraikin historikoaren eraisketa

Polemika isiotuta, eraisketaren datu gehiago hilaren 19an

Legezkotasuna lehengoratzeko agindu dio Udalak Ereaga Atalaya kooperatibari, luxuzko 12 etxebizitza eraikitzeko jauregia bota ostean. Obra geldituta dago abuztutik.

Algortako Portu Zaharrera bidean, San Nikolas kaleko 11 zenbakian lekututa zegoen «Irurak Bat» jauregitxo bota zuen abuztuaren hasieran Ereaga Atalaya kooperatibak, XIX. mendeko eraikin neoklasikoa udal-zaintzapekoa izan arren, Udalaren lizentziarik gabe.

Eraikuntza-proiektuak aurreikusten zuen luxuzko sei etxebizitza birgaitzea eraikin horretan, eta beste sei eraikitzea azpiegitura berri batean, ondo-ondoan. Hala ere, jauregitxo historikoa mantentzea aurreikusita zegoen arren, enpresa eraikitzaileak hura bota du, horretarako lizentzia eskatu barik. Hartara, Udalak obrak geldiarazteko agindua eman zuen abuztuaren 9an, obra-lizentzian ezarritako baldintzak bete ez direlako, eta hilabeteko epea eman zion hirigintza-legezkoatasuna berrezartzeko.

Herritarren artean ezinegona piztu da eraikin historiko hura eraitsi izanagatik, eta are gehiago jakin delako Ereaga Atalaya kooperatiba-



«Irurak Bat» zegoen orubea, hutsik.

ko bazkide direla Inaxio Uriarte eta Irantzu Uriarte Getxoko zinegotziak. Horren aurrean, udal-iturriek azaldu dute obra horren tramitazioan eta ikerketan abstenitzeko beharra dutela agintari bi horiek.

Oposizioko udal-taldeek zinegotzi horien partetik izan zuten horren berri; hala ere, hurrengo urratsak eman aurretik, azalpenak eskatuko dituztela iragarri dute, eta horien zain geldituko direla. Hala, gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) adierazi du gaiaren nondik norakoen datu eta azalpen gehiago emango dituela hilaren 19ko Lurralde Batzordean. ◀

Getxo Kulturaz blai

Folk Jaialdia eta Komiki Azoka, iraileko protagonistak

Kulturaz betetako hilabetea izango da iraila. Lehenengo hitzorduak Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdiaren eskutik etorriko dira. Irailaren 11tik 15era bitartean, kalitate handiko 13 kontzertu egongo dira gozagai Muxikebarrin, hala nola Buika eta Milladoiro; gainera, hilaren 13an eta 14an, doako kontzertuak emango dituzte Rodrigo Cuevasek eta Esne Beltzak, Ereagan.

Irailaren 27tik 29ra bitartean, berriz, binearren mundua izango da protagonista udalerrian. Komiki Azokak askotariko hamaika jardura hartuko ditu aurten ere, Areetako Xake plazan eta Romo Kultur Etxean. Ohi bezala, jarduerak doakoak izango dira. ◀

Getxo Bide-segurtasuna

Bederatzi radar pedagogiko instalatu dituzte udalerrian

Udalak 9 radar pedagogiko jarri ditu ibilgailuen abiadura kontrolatzeko. Horiek Ormaza, Santa Marina, Bide-zabal, Maidagan, Zientotxe, Eduardo Coste eta Arene kaleetan, eta Areetako eta Algortako etorbideetan daude. Radarrak 30 km/h-ko abiadura-mugara programatu dira, Algortako etorbidekoa izan ezik, horrek 20 km/h-ko muga baitu, oinezkoentzako plataforma bakarrek kalea delako. Laster beste bat jarriko dute Telletxe kalean, ibilgailu batek kolpatu ondoren kendu behar izan baitute. ◀

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41



**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Getxo eta Leioa Itsasadarraren azpiko tunela

Subflubiala prebentzioz gelditzeko eskatu dute

Itsasadarraren azpiko tuneleko proiektuaren eraginaren aurreikuspen falta salatzeagaz batera, irailaren 21etik 22ra horren aurkako kanpaldia egingo dute.

Ekologistak Martxan, Greenpeace, Eguzki eta Sukar Horia talde ekologistek sinatu duten dokumentuan Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu diote itsasadarraren azpiko tunelaren proiektua prebentzioz geldi dezala. Argudiatu dutenez, «oraindik guztiz planifikatu gabe dago, eskatutako sakontasunarekin eta mugikortasun eta garraio eredia era integrarean aztertzea falta da». Erantsi dutenez, oraindik Bilboko mugikortasunaren garraioaren plangintza egitea beharrezkoa da, «beharrezko sakontasunarekin jorratu ez dena». Haien aburuz, proiektuak «funtsean autoaren erabilera bultzatuko du», beraz, «klima aldatetari aurre egiteko foru-erakundearen beraren helburuen kontra doa, bai eta Europar Batasuneko baita Klimaren Plan Nazional Integratuaren kontra ere».

KANPALDIA. Irailaren 21ean eta 22an Subflubiala Ez plataformak kanpaldia antolatuko du Leioako Artatza parkean. Horretan, hainbat jarduera egitea aurreikusi dute: azoka, umeentzako jolasak, kontzertuak... Antolazailleen asmoa da ahalik eta jende gehien



«Subflubiala jasangarritasunaren eta trantsizio ekosozial justu eta erreal baten kontrako norabidean doan megaproiektua da nabarmenki»

«Esan dezakegu Subflubiala ez dela batere lerrokatzen garapen jasangarrirako helburuekin, eta, are gehiago, zentzu askotan helburu horien kontra doala beren beregi»

GORKA MARTIJA
IKERTZAILEA LATINOAMERIKAKO
MULTINAZIONALEN BEHATOKIAN
(OMAL)

erakartzea plataforma ezagutzera emateko eta horren helburua indartzeko.

KORPORAZIOEN MESEDETAN. «Subflubiala bezalako megaproiektuen onuradun nagusiak aholkularitza- eta eraikuntza-enpresa handiak izan ohi dira», salatu du Gorka Martija Latinoamerikako Multinazionalen Behategiko (OMAL) ikerlariak. Gaiaren inguruko hainbat berbaldi eman ditu berak eta, horietan, besteak beste, proiektuaren aurkako argudio nagusiak zerrendatzen ditu: batetik, «trantsizio ekosozial justu eta erreal baten kontrako norabidean doan megaproiektua da» eta garraio pribatuaren alde egiten du; bestetik, ogasun publikoa asko kaltetuko duen egitasmoa dela dio, 600 milioi euro inguruko kostua izango baitu; eta, azkenik, lanek eta trafikoak Getxon eta Leioan eragingo duen inpaktuaz ohartarazten du.

Gauzak horrela, ikerlariak adierazi du proiektu horren lehen onuradunak eraikuntza-enpresa handiak izango direla: «Eraikuntze publikoek enpresa pribatuen negozio-bolumena handitzen duten errekurto publikoen transferentzien bitartez». Horrez gain, ikerlariak adierazi du Aldundiak proiektuaren beharra eta egokitasuna 2030 Agendaren helburuakaz lerrokatu duela, «baina hori erretorika hutsa da, megaproiektu desarrollista klasiko bat jantzi sozial eta ekologikoekin moztortzeko». ◀



bai
euskarari

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

Leioa Txorierrri auzoko igogailuaren afera

Txorierrira heltzeko baliabideak, jopuntuan

Auzokideak haserre daude Udalagaz: diotenez, igogailuak etengabe ditu matxurak, eskailerak kendu dizkiete eta Udalaren autobus-zerbitzuagaz hainbat arazo dituzte.

Txorierrri auzoak itsasadarren ikuspegi ederra du, baina hirigunetik urrun dagoen auzo horretako bizilagunek salatu dute hainbat arazo dituztela irisgarritasuna dela-eta.

Batetik, auzora heltzeko igogailuaren matxuren arazoa dago. Lamiakoko metro-geltokitik auzoko begiratokiraino 242 eskailera daude, «adineko pertsona batek ezin du hori igo, are gutxiago erosketako poltsakaz edo orga bategaz», deitoratu du Elena Alonso bizilagunak. «Adineko asko gaude auzoan, eta metrora, medikuarenera edo erosketak egitera joateko igogailua behar dugu. Askotan ez dago mar txan, edo jaitsi bai, baina batek daki berriz ere igoko ote den».

Crescencio Alejok kontatu du bi aldiz geratu dela trabatuta igogailuan, «azkenengoan, ordu eta laurden inguru egon ginen nire emaztea eta biok, ateratzera etorri ziren arte». Dioenez, lehen, igogailuaren ondokoak baino erosoagoak ziren eskailera zaharrak zituzten, baina lursail pribatu batetik igarotzen direnez, norbaitek moztu egin ditu eta ezin dituzte horiek erabili.

Udal autobus-zerbitzua ere badago, baina Miren Karmele Agirrek azaldu duenez, zerbitzua ez da beti auzotik pasatzen, «gidariari gogoa ematen dionaren arabera». Horren jarraipena aplikazio baten bidez ere egiten dela dio, «baina nagusiak ez dira horregaz moldatzen».

UDALAREN ERANTZUNA. Egoeragatik arduratuta daudela eta arazoak lehenbailehen konpontzeko nahia adierazi dio Iban Rodriguez Leioako alkateak HIRUKARI. «Igogailua hainbat urtez eskatutako azpiegitura da, diru asko suposatu zuena, eta gu ere kezkatuta gaude eragozpenengatik». Zentzu horretan, iragarri du beste enpresa bat kontratatu dutela igogailuaren azterketa teknikoa egiteko, horren erreplika bat piezetan izatera behartu dutela enpresa esleipenduna, eta bide judiciala ere aztertzen ari direla.

Alkateak aurreratu du autobus-zerbitzuaren lizitazio berria egin eta lineak egokitzeko asmoa dutela. Eskailerei dagokienez, gaineratu du ibilgu zaharreko lurrak erosteko eta egokitzeko asmoa dutela, horiek ere erabilgarri egon daitezten. ◀

Leioa Kultur agenda

Eskaintza zabala dakar Kultur Leioak abendura arteko programazioan

Ikasturte berriagaz batera, hurrengo hiruhilekoan Leioako kultur agenda beteko duten ikuskizun, kontzertu, erakusketa eta zinema-emanaldien egitaraua aurkeztu dute. Besteak beste, 17 antzerki- eta musika-emanaldi, 34 zinema-saio eta hiru erakusketa izango dira abendura arte.

Programazioaren aurkezpenean, Iban Rodriguez Leioako alkateak azpimarratu zuen gobernu-taldearen politiken ardatzetako bat dela kultura, eta hori udalerriko programazioaren eskaintza zabalean eta proposamenen kalitatean nabaritzen dela. Alkateak gaineratu zuen kultura ez dela bakarrik ondo pasatzeko denbora-pasa bat, «hezitzailea ere bada eta gizarte hobea bat sortzen laguntzen gaitu».

Alkateagaz batera, aurkezpenean ere izan zen Patricia Urrutia aktorea eta *Batetik Bestera* ikuskizunaren protagonistetako bat. Giza migrazioei buruz hausnarketa proposatzen duen umorezko umeentzako obra hori kontzertu eta antzerki formatuan etorriko da Leioara, urriaren 2an eta abenduaren 28an, hurrenez hurren. «Elkarbizitzarako balioak partekatzeko proposamen dibertigarri eta interaktiboak izango da», aurreratu du Urrutiak.

Horregaz batera, iragarri dute programazioan ere sartuko dituztela Dantza Plaza saioak, Andrak taldearen *Gu gara* antzezlan, Goazenen emanaldia, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka eta Leioako Musika Bandaren kontzertua, beste askoren artean. Gainera, aurtengo programazioan, Artatza jauregian gertatutako krimen bat argitzeko murgiltze-esperientzia komiko bat ere estreinatuko dute. ◀



aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Algortako Etorbidea, 76,
48991, Algorta
944 60 90 31



skl SEKULA ESTUDIO

Artea, diseinua, ikastaroak, denda eta askoz gehiago!

IREKIERA BERRIA!

WWW.SEKULA.EUS
HEY@SEKULA.EUS

946 96 32 67
623 52 69 75

TELLETXE KALEA, 15
48993 GETXO

Erendio Ikastaroak**Emakumeen Ahalduentze Eskolak neguko programa aurkeztu du**

Zoru pelbikoa, autoen mekanika, gorputzaren maitatzea, medikalizazioa, dantza kontzientea eta maitasun erromantikoa izango dira udagoien honetan Altzagan, Astrabuduan eta Erandiogoi-koan jorratuko dituzten emakumeentzako tailerren gaiak.

Erandioko Emakumeentzako Ahalduentze Eskolak datozen hilabeteetarako prestatu duen egitarauko eskaintza urrian, azaroan eta abenduaren hasieran garatuko dute. Jarduerak doakoak izango dira, baina horietan parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa izango da eta Erandion erroldatutakoek lehenetsuna izango dute plaza eskuratzeko. Izen-emateak 944 890 240 telefono zenbakira deituz edo berdintasuna@erandio.eus helbidera idatziz egin beharko dira.

Egitasmoa Erandioko Udaleko Berdintasun Arloak antolatutako proiektua da, eta helburua da emakumeen partaidetza soziopolitikoaren sustatzea. Horretarako, ahalduentze indibiduala eta kolektiboko prozesuak baliatzen ditu, beste emakume batzuek partekatutakoa ikasiz eta aliatuz. ◀

Sopela Polizi-etxe berritua**Udaltzaingoaren komisaria osorik eraberrituko dute**

Sopelako gobernu-taldeak Eleizalde kalean Udaltzaingoaren polizia-etxea bere lekuan mantenduko du, baina osorik eraberritzeko asmoa iragarri du. Egitasmo horrek 562.000 euroko aurrekontua izango du guztira.

Gaur egun, 24 agentek osatzen dute Sopelako Udaltzaingoa, 15.000 biztanle ingururen zatia, hau da, agenteko 625 biztanleko ratioa du Sopelak. Komisaria berriaren proiektuak 35 edo 37 agente hartzeko gaitasuna izango du; hartara, beharrezkoa balitz, gutxienez 20.000 biztanleko biztanleriari erantzun ahal izango lioke.

Sopelak 28 delituko tasa du 1.000 biztanleko, Uribe Kostako txikiena eta Bizkaiko lau garren txikiena, Ertzaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko kriminalitate-datu orokorrean buruz egindako txosten baten arabera. ◀

Berango Aurrekontu parte-hartzaileak**150.000 euro bideratuko dituzte proposamenetarako**

Irailaren 22ra arte aurkeztu ahal izango dira Berangoko partaidetzako aurrekontuetarako proposamenak. Ekarpenak online zein aurrez aurre egin ahal izango dira.

Beste urte batez, Berangoko Udalak martxan jarri ditu partaidetzako aurrekontuen kanpaina, 2025eko diru-partidetan herritarren proposamenak ere sar daitezkeen. Herritarrek egiten dituzten ekarpenetatik hautatuak direnak garatzeko, Udalak 150.000 euro bideratuko dituela iragarri du.

Daborduko prozesuko lehen fasea abiatu dute eta herritarrek beraien proposamenak aurrez aurre aurkeztu ditzakete, udalerriko hainbat tokitan jarri dituzten postontzietan. Horrez gain, proposamenak posta elektronikoko bidez ere aurkeztu daitezke, Berangoko Uda-

laren webgunean topa daitezkeen formularioa bete eta partaidetza@berango.org helbide elektronikora bidaliz.

Udal-iturriek gogoratu dute proposamenak udal-eskumenekoak izan behar direla, hau da, obrak, hirigintza, mantentze-lanak... Hala ere, ekonomikoki bideragarriak eta interes orokorrekoak direnak ere lehenetsiko dituzte.

Hori jakinarazteagaz batera, Berangoko Udalak gogoratu du 2024ko aurrekontu parte-hartzaileei esker Getxo eta Sopela arteko bidegorri-sarearen proiektua onartu zutela eta Itze bidean ibai-parkea diseinatu ahal izan dutela. ◀

**Barinatxeko arrapala egokitu dute**

Erakunde eskudunek hondartzara jaisteko arrapala konpondu ez dutenez, Sopelako Udalak modu subsidiarioan egin ditu konponketa-lanak, larrialdietako eta garbiketako ibilgailuak hareatzara sartu ahal izateko.

Urduliz Andra Mariko jaiak

Festen egarria asetuko dute, hurrengo udara arte

Urdulizko andramariak emango dute udako jaietako azkenetako txupin eztanda. Irailaren 15era arte, bizilagunek dena emango dute euren herriko festetan.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Uda laburra baina intentsua izaten ari da, jai euskaldunez betetakoa. Hala ere, Urdulizen oraindino ere parrandarako gogoia dute, eta, horregatik, jaietako azken egunei merezi duten agurra emateko prest daude bizilagunak. Jai-batzordeak adierazi duen bezala, espero dute azken egunera arte inongo eraso matxista edo LGTBIQ+-fobikorik ez izatea.

Azaldu dutenez, herri-bazkaria da egiten duten ekitaldirik jendetsuena: «Aurten 400 heldu eta 240 haur inguru egongo gara». Gainera, bigarren urtez jarraian, lehiaketa gastronomikoa egin dute, jendeak hori faltan botatzen zuelako. «Nobedade gisa, irailaren 14an, zapatuan, egun tematikoa izango dugu paella lehiaketarekin batera». Diotenez, mozorrotzea gustuko duten guztiek hala egitea gura dute, eta inguruko denda eta tabernek establezimendua mozorrotu eta apaindu ahal izatea, bestelako «jai giroa sortzeko».

Gainera, ziurtatu dute herritarren parte-hartzea jaietan «handia» dela. Izan ere, kuadrillen lehiaketan 21 helduk eta 12 haurrek eman dute izena. Hala, zehaztu dute jarduera horiek ez direla soilik kuadrillentzako: «Herriak ondo erantzuten du eta antolatzen ditugun ekintzetan parte hartzen du».

Antolaketari dagokionez, joan den urteko azaroan hasi ziren jaiak prestatzen, ia urtebete lehenago. Lehenengo bilera horretan, aurreko urteko programazioari buelta batzuk ematen dizkiote eta ikusten dute zer hobetu dezaketen, zerk ez duen arrakasta askorik izan, eta abar.

MARTINAREN ALDEKO TXOSNA. Aurten, FIRES gaixotasuna duen Martina Balparda urduliztarraren aldeko txosna batek lekua hartu du festa eremuan. Umeak 5 urte ditu



Irailaren 15ean bukatuko dira Urdulizko jaiak. IKER RINCON MORENO

«Nobedade gisa, irailaren 14an, zapatuan, egun tematikoa izango dugu paella lehiaketarekin batera»

URDULIZKO JAI-BATZORDEA

eta joan den martxoan FIRES zuela diagnostikatu zioten. Gaixotasun arraro bat da eta epilepsia momentu gogorak bizi ditu. Egun, % 95eko desgaitasuna du Martinak, 3. graduan. «Aulkian joan behar du eta ez du hitz egiten. Gure bizitza guztiz aldatu da», azaldu du bere ama den Olatz Ondarrak. Halaber, gaur egun, ez dago inolako azterketarik FIRES-aren inguruan; ez dago tratamendurik eta ez dago krisi epileptikoak geldituko dituen tratamendu zehatzik. Horregatik, FIRES-a ikertzeko dirua lortzeko txosna jarri dute Martinaren gurasoek Urdulizko jaietan: «Madrilgo klinika pribatu batean, oinarrizko azterketa bat egingo dute lehen aldiz 40.000 eurogaz». Une gogorak izan arren, baieztatu dute herritar guztiengatik oso babestuta sentitu direla eta uste dutela garrantzitsuena «batera» mantentzea dela orain. ◀



Ikus ezazu jaien egitaraua osorik, QR honen bitartez.

Gorliz Istiluak pinudian

Udalak pinudiaren kontrola berreskuratu gura du

Beste uda batez, gizalegearen aurkako hainbat portaera salatu dituzte Gorlizko pinudian. Udala Ertzaintzagaz eta Aldundiagaz batuko da konponbide bat bilatze aldera.

Gorlizko Udalak adierazi duenez, herriko pinudiko atsedenekuan bizilagunen segurtasuna eta natura ingurunearen babesa arriskuan jartzen dituzten hainbat gertakari eta jarduera jazo dira uda honetan. Gizalegearen aurkako portaerek gora egin dutela diote eta, ondorioz, auzokideek ez dute ia eremu hori erabiltzen, eremua oso egoera txarrean topatzen dutelako. Konponbide bat bilatze aldera, Ertzaintzagaz bildu da Udala, eta, laster, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batuko da.

Pinudiaren barruan gizalegearen aurka jatzotako portaeren artean hurrengoak zerrendatu dituzte: baimendutako eremuetatik kan-



Arazoen iturri

Gorlizko pinudian hainbat istilu salatu dituzte azken urteotan, baita deitoratu ere herritik kanpoko hainbat pertsonak eremuaren erabilera desegokia egiten duela. Gizalegearen aurkako portaerak udaldian ematen dira, batez ere, jende asko inguru horretaz gozatzera hurbiltzen denean.

po suak egitea; tokiko lasaitasuna galarazten duten sorgailuak dituzten bozgorailuak erabiltzea; mehatxuak eta istiluak; baimenik gabeko kanpaldiak eta zabor kantitate handiak pilatzea. Udalak azaldu duenez, jarduera horiek eremua arrisku larrian jartzeaz gain, «eragin kaltegarria dute ingurunean eta horretaz gozatu gura dutenengan».

Udalak deitoratu bezala, abuztu bukaeran, gizalegearen aurkako ekintzengatik hainbat pertsonari isunak jarri ondoren, «gazte talde handi bat udaltzainengana hurbildu eta burdinazko larakoakaz mehatxatu zituen». Hala, Ertzaintzaren laguntza eskatu behar izan zuten bertatik alde egin ondoren, baina, une horretan, ez zuten patruilarik bertara joateko.

Gauzak horrela, Gorlizko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ertzaintzaren esku-hartzea eskatu du, «pinudia babesteko eta lasaitasuna bermatzeko». Gainera, komun gehiago jartzeko beharra ere adierazi du, jende andana bertaraten baita eremu osoa «pixa usainez eta gorotzez beteta» utziz. ◀

Uribe Kosta Ikasturte berrirako udal-ikastaroen eskaintza zabala

Adin eta nahiera guztietako moduko ikastaroak herritik mugitu gabe

Ikasturte berria hasteagaz batera, eskualdeko udalerriek 2024-2025 aldiko ikastaroen eskaintza ere aurkeztu dute. Beste behin, kirola eta eskulanak dira nagusi.

Hasteko, Barrikan txalaparta ikastaro bat egingo dute 18 urtetik gorako herritarrentzat. Klaseak eguen arrastietan egingo dituzte, ekainaren 3tik ekainaren 19ra, Ander Deuna aretoan. Horrez gain, ludotekak ere denboraldi berri bati ekin dio.

Gorlizen, udal-ikastaroetan aurrematrikula egiteko epea irailaren 15ean itxiko dute. Horretarako, kirol eta kultura eskaintza zabala prestatu dute; informazio guztia eta xehetasunak udal-webgunean kontsultatu daitezke.

Kontaktuak:

Barrika: Liburutegian, 946 775 163 telefonoan edo liburutegia@barrika.eus.

Gorliz: kiroldegian (747 481 239) eta kultur etxean (946 774 000).

Plentzia: Goñi Portalen, 946 775 541 telefonoan.

Lemoiz: Kultur etxean (946 879 037).

Mankomunitatea: Izen-emateak eta informazio guztia: www.uribekosta.eus.

Plentziako Udalak 5 eta 15 urte arteko gazteentzako antzerkia; podcast eta irratia; eta eskulanak, zientzia eta esperimenduak eskainiko ditu. Aldiz, 16 urtetik gorakoentzako antzerkia, panderoa eta joskintza izango dira eskaintza; astelehen, martitzen eta eguenean, Goñi Portalen. Irailaren 20a baino lehenago egin beharko da izen-ematea.

Lemoizen ere eskaintza zabala prestatu dute hurrengo hilabeteetarako: batukada, trikitia, tai-xi, txalaparta, jostura... Izena emateko epea irailaren 20an itxiko dute.

Bukatzeko, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak ere Inguru Minguru tailerren ikasturte berri bat abiatuko du ingurumen-hezikuntzako hainbat ikastarogaz. Izena emateko epea irailaren 22an itxiko dute. ◀

2024KO GETXOKO EUSKARA SARIA

ARGIA EREITEN

XV. EDIZIOA

BIDALI ZURE HAUTAGAITZA!!

Saritu nahi dugu Getxon lanean, aisialdian, sare sozialetan...
egunerokoan giro euskalduna sortzen duen pertsona, taldea,
elkartea, saltokia...

Hautagaiak aurkezteko azken eguna:
urriaren 20a



Getxoko Udala - Euskara Zerbitzua
94 466 00 10
euskara@getxo.eus



* Adimen artifizialarekin sortutako inudia



Iraila-urria

Barrika

Irailak 20, barikua

Ludoteka: txikitxef

18:00 | Ander Deuna aretoan

5-12 urte arteko umeentzat. Izen-emateak: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus

Irailak 27, barikua

Ludoteka: zuhaitzak ezagutzen

18:00 | Liburutegian

5-12 urte arteko umeentzat. Izen-emateak: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

Irailak 16tik urriaren 11ra

Euskara ikastaroa gurasoentzat
Liburutegian

A1 eta A2 ikastaroan izena emateko epea.
Informazio gehiago: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

Erandio

Irailak 13, 14 eta 15

Lutxanako jaiak

Lutxanan

Egitarau osoa hiruka.eus atarian.

Irailak 21, zapatua

Euskal ezkontza

11:30 | Astrabudian

Trabudu Dantzari Taldearen ikuskizuna.

Irailak 22, domeka

XVI. Umeen Bizikleta Festa

11:00 | Erandion, Leioan eta Berangon

Izen-emateak www.ubfesta.org webgunean.

Irailak 27, 28 eta 29

Erandio Magikoa

Erandiogoikoan, Altzagan eta Astrabudian

Ikusi egitaraua hiruka.eus atarian.

Getxo

Irailak 21, zapatua

Musika: Assmer Band

19:00 | Abian kultur elkartearen

Arrozak & Musika zikloko kontzertua.

Irailak 22, domeka

Hitzaren Dantza

Algortako kaleetan

Euskara eta euskal kultura ardatz izango dituen ALBEK antolatutako jaialdia.

Irailak 27, barikua

Kontzertua: Arene 6

21:00 | Muxikebarrin

Irailaren 27tik 29ra

Getxoko Komiki Azoka

Areetako Xake plazan eta RKEan

Salmenta postuak, berbaldiak, omenaldiak...

Irailak 29, domeka

Munduko Arrozak jaialdia

San Nikolas plazan

Kulturartekotasuna eta aniztasuna jorratzeko festa-eguna. Egitaraua: hiruka.eus-en.

Gorliz

Irailaren 13tik 22ra

Arte-erakusketa

Erakusketa gelan

Caristas Uribe Kostaren erakusketa.

Irailaren 21etik 29ra

Kirol eta kultur ikastaroetako izen-emateak

Kultur etxean eta kiroldegian

Informazio guztia: www.gorliz.eus.

Irailaren 13tik 22ra

Nordic Walking irteera

10:15 | Kiroldegitik

Izen-emateak: turismo bulegoan edo 946 774 348 eta 688 818 876 telefono-zenbakietan.

Leioa

Irailak 27, barikua

Antzerkia: War Baby

20:30 | Kultur Leioan

Pertsonaia dibertigarriak eta gerraren zentzugabekeriaren satira.

Urriak 4, barikua

Musika: El Broadway más clásico

20:30 | Kultur Leioan

Artista talentudunek interpretatutako antzerki musikal hungigarraria.

Urriak 5, zapatua

Munduko Arrozak Leioan

10:30 | Boulevarden

Egun osoko egitaraua prestatu dute aurten kulturartekotasun jaialdirako.

Lemoiz

Irailaren 9tik 20ra

Erakusketa: Mikroplastikoak

Armintzako kultur etxean

Irailak 21, zapatua

Ipuin-kontalaria

18:00 | Armintzako kultur etxean

Kiribil doktorea mikroplastikoen aurka!

Irailaren 27tik 29ra

Andrakako San Frantzisko jaiak

Andra auzoan

Egitaraua hiruka.eus atarian.

Plentzia

Irailak 20 eta 21

Artekale

Plentziako kaleetan

Kaleko arte eszenikoaren jaialdia.

Iraila 22, domeka

Bisita gidatua: Itsas tradizioa

11:00 | Turismo bulegoan

Izen emateak: 946 774 199.

Irailak 22, domeka

BizkaiaGara Eguna

11:00 | Ontziola plazan

GoazenUp elkarteak antolatuta.

Sopela

Irailak 20, 21 eta 22

Sopela Kosta Fest 2024

Sopeloztar jaialdi ikonikoak agur esango dio udari, natura, surfa eta kultura uztartzen dituen egitarau oparo batez. Egitaraua hiruka.eus-en.

Irailak 24, martitzena

Berbaldia: aurretiazko borondateen dokumentua

18:00 | Kurtzio kultur etxea

Victor Landa Petralanda, familia medikuaren eskutik.

Irailak 28 eta 29

Sopela Neskaters

Udaletxeko eta Urgitxietako plazetan

Emakumeen irristatze-jardunaldia.

Urduliz

Irailaren 6tik 15era

Andra Mari jaiak

Elortzan

Egitaraua hiruka.eus-en.

Irailak 21, zapatua

Herri-martxa

09:00 | Udaletxetik abiatuta

Izen-emateak, 08:00etan eta 09:00etan.

Irailak 28, zapatua

Kontzertua: Basajaun

19:00 | Landan

Euria egiten badu Marutze frontoian.

Lehen/Orain **Getxoko Paella Lehiaketa, 1960-70 harmarkaden artean**



ITURRIA: MEMORIAS DE GETXO

Uribitakora



ALBE

Algortako
Bertsolari
Eskola

TESTUA
Galder Bilbao
Txapi

DOINUA
Gorotzak eta
kolillak batu

ARGAZKIA
Jorje Perez

Marrubia eta txokolatea

Alarmak jo du goizean goiz
nagi jeiki, suabe-suabe,
jantzi prestatu eta gosaldu
jatekoak ta edabe.
Klase batzu ta hiru-lau batzar
eguna ez da izango grabe,
gero lagunak eta familia
atsedenerako sare.
Kalera irten eta topatu
realidadea parez pare.

Txakurrak ta katuak etxeetan
gustora jaten ta edaten,
gero kalera paseoan lasai
beharrak lurrean egiten.
Arduragabe zikiñak daude
dena batu gabe uzten,
gorotzek hanka ta zangorik ez
bakarrik ez dira joaten;
animalien menpe gabiltza
animaliak izaten.

Egunero aurkitzen ditugu
topo egiteko harri,
bere alboan edo nahasturik
baloï frisbee edo puxtarri.
Kuardo metaforikoa dirudi
gizartearen ezaugarri,
Aberasturi edo Galdaretxen
zapore berria ezarri;
kukurutxoan jasoko nieke
ta buru gainean jarri.

Koldo Tellitu *Ni ikastola: XXI. mendeko ikastolen historia sozial bat liburuz*

«Ikastolak ekarpen iturri iraunkorra izan dira»

Azken mende laurdenean ikastolen mugimenduaren inguruan izandakoak jaso ditu Koldo Tellituk *Ni ikastola: XXI. mendeko ikastolen historia sozial bat* liburuan. Horretaz eta ikastolen iraganaz eta etorkizunaz galdetu diogu Ikastolen Elkarteko presidente ohia.

ANDER ZARRAGA ►

Zer dela eta erabaki duzu *Ni ikastola: XXI. mendeko ikastolen historia sozial bat* liburua idaztea? Behin ikastolen elkartean egin nuen ibilbidea amaituta, ikastolen mugimenduko arduradun goren gisa izan nituen bizipen guztiak liburu batean jasotzeko nolabaiteko beharra sentitzen nuen. Gainera, ez da liburu askorik idatzi ikastolen historiari buruz, eta argitaratuta dauden bakanetatik ia guztiek ikastolek arlo pedagogikoan egindako ekarpenak dituzte ardatz... eta praktikan, bakar bat ere ez dago mende honetako ikastolen historiari buruzkoa. Eredu horretan hutsune handi bat zegoela sentitzen nuen, eta egoera horri buelta eman nahi nion neurri batean. Horregatik, XXI. mendean ikastolen mugimenduan gertatutakoari buruzko nire ikuspegi pertsonala eman nahi nuen, ikastolek gizartearen egiten duten ekarpenen zentratuz.

Irakurleek zer aurkituko dute horretan? Beraziki, XXI. mendeko ikastolen historiaren inguruko hausnarketa pertsonala da. Mende honetako ikastolen mugimenduko gertakari

«XXI. mendea garai konplexuagoa izan da. 1993ko publikazio prozesuaren ondoren, publiko-pribatu dikotomia etengabe mahi gainean egon delako. Jende askok eskola pribatutzat jo ditu ikastolak, irabazi asmoekin eta elitistak. Garai zailak izan dira gizartearen aitortza jasotzeko».

garrantzitsuenen errebaso sakon bat da, garai horretan izan nuen ikastolen elkarteko lehendakari posizio pribilegiatutik eginda. Horretarako, material propioaz baliatu naiz, baita ikastolen mugimenduko publikoa egin den materialaz ere.

Liburu honen beste ezaugarri bat da, kronologikoki idatzita dagoen arren, modu ezberdinetan irakur daitekeela, hasieratik amaierara, baina kapituluka edo atalka irakurtzeko aukera ere ematen du, kapitulu bakoitza XXI. mendeko ikastolen historiaren fase bati eskainita baitago. Era berean, kontsulta-liburu bihurtu daiteke ikastolen mende honetako garai edo eremu jakin batean zer gertatu zen jakin nahi dutenentzat. Eta hedaduraz, Euskal Herriko hezkuntza-sisteman XXI. mendean gertatutakoa kontsultatzeko.

Liburuan diozu ikastolen onarpen sozialerako garai zailak izaten ari direla, zergatik? Bai, ikastolen inguruan egindako liburu gehienetan garai epikoak lantzen dira. Garai epiko horien oroitzapenak diot, bai bizi zen egoera politiko gogorragatik, bai ikastolek euskarari eta euskal kulturari emandako bul-



www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVA...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

tzadagatik, baita denboran urrun egoteagatik ere, euskal gizarteak baldintzarik gabeko onarpena eman zielako ikastolei.

Baina XXI. mendea garai konplexuagoa izan da, 1993ko publikazio prozesuaren ondoren, publiko-pribatu dikotomia etengabe mahai gainean egon delako. Jende askok eskola pribatutzat jo ditu ikastolak, irabazi asmoe-kin eta elitistak. Garai zailak izan dira gizartearen aitortza jasotzeko.


Nola deskribatuko zenuke ikastolek euskal gizarteari egin dioten ekarpena? Ikastolen mugimenduarena historia bizia izan da, bizia eta soziala. Izan ere, herritik sortu eta herritarrekin elkarrekintzan aritu diren ikastolak eta euskal gizartearen elkar elikatze baten historiaren subjektuak dira. Unean uneko gizarte-bizitzak ikastoletan eragin izan duen bezala, ikastolen ibilbidea ekarpen iturri iraunkorra izan da Euskal Herriarentzat. Liburuan, mende honetan zehar ikastolen mugimenduak euskal gizarteari egin dion ekarpenaren adibide ugari biltzen ditut. Ikastolen ekimenez sortu diren proiektuetatik hasi eta beste gizarte-erakunde batzuekin aktiboki inplikatu garen proiektuetara iritsi arte.

Ez gara hezkuntza-arloko erakunde hutsa, beste gizarte mugimendu eta eragileekin batera agertzekoa eta akordioak lortzeko ahalmena erakutsi dugu beti, bereziki euskalgintza eta kooperatibagintza arlokoak.

Zure bigarren liburua da, *Neure Jugoslavia, hain ulertu gabea* liburua argitaratu osteko. Bien arteko loturetako bat kooperatibismoa izan daiteke? Bai, ez zen kasualitatea izan lehen liburu horretako kapitulu- baten «Hezkuntza-sistema, autogestionatua eta herrikoa, ezaguna egiten zaigu!» izenburua izatea. Bai, Jugoslaviako Hezkuntza Kooperatibak, bai Euskal Herriko Ikastolak, hezkun-



Tellitua 17 urtez izan da Ikastolen Elkarte presidentea. HO DEI TORRES



BIGARREN LANA

Koldo Tellituk *Neure Jugoslavia, hain ulertu gabea* saiakera-liburua ere idatzi zuen 2023an. Horretan, Jugoslaviako esperientzia autogestionatu sozialistaren hainbat eremu erreparatzeko dituen

tzaren eremuko behar sozial bati erantzuteko sortu ziren eta komunitate logiketatik, herritarren arteko elkar lotura horizontaletatik, eratorritzen ziren beste balio batzuk elkartasuna, lankidetzeta, auzolana bultzatzen zuten erakundeak dira. Bi herrialdeen arteko distantzia, geografikoa bai, baina baita historikoa, politikoa eta kulturala ere, ez zen oztopo izan hezkuntzaren esparruan antzeko konponbideak emateko. Harritu egin ninduen horri buruzko lehen berria izan nuenean, eta bi sistemen arteko antzekotasunek eragindako harridura hori Jugoslaviako hezkuntza sistemaren hausnarketan urteetan sakontzen jarraitu izanaren motorra izan zen.

Azken batean, Jugoslaviako ikastetxeetako lana eta kudeaketa antolatze arauak autogestionarioak izan ziren funtsean. Izen desberdinekin, baina ikastola baten funtzionamendua ezagutzen duen edonork antzeman ditzake organo horiek eta haien funtzioak, ikastolarenak balira bezala.



Sartu hiruka.eus atarian eta irakurri elkarrizketa osorik.

SAN
NIKOLAS
IKASTOLA
SANIKOLAS.EUS/ZATOA



Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

94 430 54 78
ikastola@sanikolas.eus



MATRÍCULAS ABIERTAS

REAENGLISH.ES

inglés



que **NO** da pereza

PREPARA TU EXAMEN

ADVANCE

PRUEBA TU NIVEL
GRATIS
DURANTE LAS PUERTAS ABIERTAS

FIRST PROFICIENCY

INGLÉS GENERAL



Puedes empezar cualquier lunes

SEPT

Inicio del curso

JORNADAS PUERTAS ABIERTAS
26 AGOSTO A 6 SEPTIEMBRE
LUNES-VIERNES
10:00-13:00
17:00-20:30

Mañanas y Tardes

PZA. CORO BIOTZ ALAI AVE. ALGORTA 59 - TRASERA

HNOS. INS. CRIS. 4 LONJA 2

AITA GOTZON KALEA 2

GETXO 648 257 572

PORTUGALETE 747 425 749

URDULIZ 747 403 685

48990 GETXO

48920 PORTUGALETE

48610 URDULIZ

Eskolara buelta: nola bizi dute gurasoek?



OLATZ ORTEGA BRETOS
ALGORTA

Nahiko urduri nago. Nire umeak bi urte ditu eta haur-eskola hasiko du lehenengo aldiz. Egokitzapena izango dugu lehenengo bi asteetan. Pena ematen dit orain arte eszedentzian egon naizelako berarekin eta oso gustura egon garelako. Nire beldur handiena da bera ondo ez egotea.



ANDRA DANIELA BURADA
ALGORTA

Nire umeak hilabete osoko egokitzapena du. Haurtzaindegian egon da orain arte eta, orain, Haur Hezkuntza hasiko du. Ez nago urduri; berak asko disfrutatzen du beste umeekin, oso ondo pasatzen du eta badakit asko ikasten duela. Hala ere, faltan botako dut, noski.



JOSU BRUZOS
ALGORTA

Haur-eskolan egokitzapena egin genuen eta, orain, ikastolara joango da. Beragatik urduri gaude, eskola berri bat delako. Bere andereño berriaren argazkiak erakutsi dizkiogu eta ikastola ondotik paseok eman ditugu berak aldaketa hobeto eramateko. Espero dugu ondo joatea.



ESTIBALIZ EGIA
ALGORTA

Bi ume ditut, 5 eta 3 urtekoak. Eskolara buelta ondo daramat. Eskola bera da eta ez nago urduri. Uste dut txikiari apur bat gehiago kostatuko zaiola errutina horretara bueltatzea, gogo gutxiagorekin baitago. Baina, orokorrean, pozik doaz eskolara eta azkar ohituko dira.



ANA TIJERO
ALGORTA

Errutinara bueltatzea eta horrek dakarren logistika da niretzat zailena. Aurten, eszedentzia hartu dut egokitzapena egiteko, iaz niretzat oso zaila izan baitzen. Kontziliazio-neurriak ez dira nahikoak eta egokitzapena egitea eta lanean egotea oso zaila egiten zaizkit.



KOLDO ETXEBARRIA
ALGORTA

Oraindik umeak oporretan daude, baina gurasoak lanean, beraz, guk laguntzen diegu ahal dugun heinean. Baina hau ez da betikoa, guk ere bi seme izan genituen eta emakume bat genuen etxeko gauzez arduratzeko; gaur egun, lan ona izan arren, hori ezinezkoa da.



**JOSE ANTONIO AGIRRE
EUSKALTEGIA**

 **2024-2025**
Matrikula zabalik

Apunta zaitetz!



+16 urte/años

Maila guztiak, goizez eta arratsaldez.
Todos los niveles, por la mañana y por la tarde.

6-16 urte/años

Astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan.
Lunes y miércoles, o martes y jueves. **17:30 - 19:00**

**Bulego ordutegia/
horario de oficina**

9:30 - 13:30
16:30 - 19:30

 94 460 66 71

 idazkaritza@jagirre.eus

 www.jagirre.eus

HABER d'iruz lagundua
HADE

2024-2025 ikasturtea Gastuak

Eskola-gastuak: zenbateko kostua du ikasturtearen hasierak familiengan?


Prezioen igoerak ikasturte hasieran ere nabarituko dira. Aurten, batez beste, ikasle bakoitzeko 400 euro gehiago gastatuko dira ikasturtean.

Irailagaz batera abiatu da 2024-2025 ikasturtea, horrek dakarren guztiaz. Ikasleak eskolara bueltatu dira, eta apurka-apurka errutina berriari ekin diote. Bitartean, neska-mutilek erronka berriari aurre egiteko behar duten guztia erosi behar izango dute egunotan familiek. OCU kontsumitzaileen erakundeak ohartarazi duenez, aurten 2.588 euro inbertitu behar izango dituzte zeregin horietan, aurreko ikasturtean baino 400 euro gehiago, batez beste. «Eskolara itzultzeko ekipazio-gastuek baka-rik (liburuen, materialaren, uniformearen eta abarren artean) eragin dezakete ikasle bakoitzeko 500 euro baino gehiago», nabarmendu du erakunde horrek.

Eskola-gastu guztien batura, batez beste, 2.588 eurokoa izango da ikasle bakoitzeko (2023an 2.189 eurokoa izan zen) Espainiako Estatuan; EAEn, aldiz, zenbateko hori txikiagoa da, erakunde horrek emandako datuen arabera, batez bestekoa 2.291ekoa baita. Hala ere, berriz ere alde handiak daude ikasketa-mailaren eta, batez ere, ikasten duten ikastetxe-motaren arabera.

Ildo horretan, urteko gastua batez beste 1.200 eurokoa izan daiteke zentro publiko

Aurreikusitako gastua, ikasketa-mailaren arabera



Eskolarako matrikulaz gainera –publikoetan ez–, behar duten guztiagaz hornitu behar ditugu ikasleak: testuliburuak eta materialak, besteak beste.

batean, eta ia 8.000 eurokoa ikastetxe pribatu batean. Bi muturren artean itunpeko ikastetxe batera doazenak daude, non batez beste 3.396 euro gastatuko dituzten. Egingo den ikasketa-maila ere erabakigarria da gastuan: haur txikienen eta Batxilergoko ikasleek eskolara bueltatzeko garestiagoak dira Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek baino, oro har.

Eskolara bueltatzeko inbertsioaren gorakada honen aurrean, gastuak arintzeko «formula magikorik» ez dagoen arren, hainbat gomendio eman ditu aurten ere Kontsumibidek, bere webgunean topa daitezkeenak.



Ongi etorri 2024-25 ikasturtera

Ikasturte berria, erronka berriak!

ander deuna
IKASTOLA

ikastolenkarta

Zergatik behar dute horrenbeste denbora ikasleek euskaraz hitz egiten ikasteko?

Euskaltegiko ikaslea bazara, hona hemen Jose Ramon Onandia uribekostarrak euskaraz berba egiten ikasteko partekatutako hainbat gomendio.

Lehenengo, gogoia, nahia edo gura handia izan behar dela azpimarratzen du: «Lehentasuna ikasteari eman behar diogu. Zenbat eta ordu gehiago eman euskara ikasten, orduan eta arinago ikasiko dugu». Hori argi izanda, Jose Ramon Onandiak dio lau urtez hurrengo lanok egiten baditugu euskaraz berba egiteko gai izango gara.

A-1, LEHENENGO MAILA. Astero, euskaltegian 10 ordu eta etxean beste ordu bat gehiago egunero; era berean, Youtubeko «Oromen» programa ikustea, gramatikaren nondik norakoetan murgiltzeko.

Euskaltegiko ikaslea bazara, hona hemen euskaraz hitz egiten ikasteko hainbat gomendio, mailaren arabera bete ahal izatekoak.

A-2, BIGARREN MAILA. Aurrekoaz gainera, barnetegi batera joan edo kurtso trinko bat egitea gomendatzen du, baita hileroko liburu bat irakurri eta astero idazlan bat egin.

B-1, HIRUGARREN MAILA. Aurrekoakaz batera, Mintzaneten sartu eta beste pertsona batezaz berba egin; Berbalagun taldeko kide izan eta Egizuren ekintzetan parte hartu; eta egunero euskarazko komunikabideak kontsumitu, besteak beste.

B-2, LAUGARREN MAILA. Aurreko guztiak egiten jarraitu, Egizuren ekintza gehiagotan parte hartu eta lotsa etxean utzi, praktikatu eta praktikatu, horrela ikasten baita euskaraz.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

24/25

MATRIKULA EPEA:
Irailaren 3tik 23ra arte.
PLAZO DE MATRÍCULA:
Del 3 al 23 de septiembre.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE)
Santa Eugenia plaza, 1. 4. solairua (Getxo)
944 646 299 – euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu

ESKAINZA ETA ORDUTEGI ZABALA
Amplia oferta de cursos y niveles

MAILA GUZTIAK
Todos los niveles
A1-A2-B1-B2-C1-C2

EGUNEROKO ESKOLAK: 10 eskola-ordu astean
Clases diarias: 10 horas lectivas a la semana

MODULU TXIKIAK: 5 eskola-ordu astean
MÓDULOS REDUCIDOS: 5 horas lectivas a la semana

IKASTARO TRINKOAK: 5 eskola-ordu egunean
CURSOS INTENSIVOS: 5 horas lectivas diarias

JARDUN BIKOAK: Aurrez aurre, autoikaskuntza eta tutoretzak
SISTEMA MIXTO: Clases presenciales, autoaprendizaje y tutorías

MINTZA-PRAKTIKA: Aurrez aurre astean bitan
PRÁCTICA ORAL: Presenciales dos días a la semana
Niveles **B2-C1** mailak

AUTOIKASKUNTZA
AUTOAPRENDIZAJE

www.getxo.eus/eu/euskaltegi | www.udaleuskaltegiak.eus/eu

LANDABASO ESKOLA AKTIBOIA

La Herrera Ijalde auzoa, 7, 48860 ZALLA • 635 352 158 • www.landabaso.eus

Errespetuz, konfiantzaz eta aske

Gainerako pertsonak, izakiak eta ingurunea errespetatzea; bakoitzaren berezko gaitasunetan konfiantza izatea eta askatasuna zaintzea dira gure pedagogia-gidak.

Landabaso Eskola Aktiboak bere 9. ikasturtea hasiko du, orain arte bezala, Haur (3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) eskaintzagaz. Aurten, baina, berrikuntza batez gatzoz, irakasle eta gurasoentzako formakuntza izango baitugu, urritik ekainera, zapatu bat hilean. Gure ezagutza eta esperientziaren ikuspuntutik, Hezkuntza aldatzeko suertatzen ari den grinari zentzua emateko asmoz abiatuko gara proiektu berri horretan.

UMEEN IKASKUNTZA-PROZESUA. Prozesua sakonago ezagutzeko eta ulertzeko interesa asetzeko gunea sortuko dugu. Umearen garapen-



Haurren hazkundea bidelaguntzeko alderdietan murgiltzeko formakuntza eskainiko dugu.

FORMAKUNTZA BERRIA

«Aldaketa zuzen has daiteke. 2024-2025 ikasturte ona opa dizuegu!»

-prozesuaren oinarri neurobiologikoak eta bizi dugun testuinguruaren ezaugarri kulturalak kontutan hartuta, bere alderdi fisikoan, emozional-erlazionalean eta kognitiboan hazteko zer-nolako estruktura eta proposamen pedagogikoak izan daitezkeen aztertuko dugu, betiere hezitzailearen rola inguruan hausnartzen.

HAMILTON IDIOMAS

Sipiri kalea 11, beheko solairua, 48600 SOPELA • 946 763 012 • www.hamiltonidiomas.com

Ingeles-mailaren ziurtagiria duzu?

Garrantzitsua da ingeles-mailaren ziurtagiria izatea gaur egun, pertsonal mailan, eta, batez ere, lan arloan. Hona hemen arrazoi nabarmenetako batzuk.

Nazioarteko aitortpena; EEMBren bidez emandako ziurtagiriak mundu osoan aitortzen dira eta, ondorioz ingurune profesional, akademiko edo pertsonal batean komunikatzeko aukera ematen ditu.

LAN HOBETUNTZAK. Profil profesionala nabarmen hobetzen du.

UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA ETA BEKA-PROGRAMAK. Erasmus beka, nazioarteko programak eta atzerriko ikasketak eskuratzeko lagunduko ditu.

BIZITZA ERREALERAKO PRESTAKUNTZA. A1



Sopelako zentrora hurbildu informazio gehiago jasotzeko, inolako konpromisorik gabe.

LANGUAGECERT
Hamiltonen agiri honi buruz informazioa eskatu. Baliogarria eta erraz ateratzen den ziurtagiria da!

mailatik C2 mailara aurrera egin ahala, hizkuntzan eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna indartu egiten da.

MAILA GUZTIETAN ERAKUTSITAKO GAITASUNA. Ikasleek zehatz jakiteko zein mailatan da goen eta zer arlo hobetu behar dituen.

Euskara eroso bizitzeko

æk

euskara praktikoa



URIBE KOSTAKO AEK

EUSKARA ESKOLAK

Ikastaro trinkoak

Ordutegi zabalak. A1-A2-B1-B2-C1-C2

Autoikaskuntza, online ikastaroak, barnetegiak

Eskaintza bereziak/ AISA, dendariak, guraso taldeak,...

MATRIKULA ZABALIK IRAILA OSOAN

IZEN EMATEA:

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@æk.eus | Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@æk.eus
Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@æk.eus | Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@æk.eus
Urduliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@æk.eus

<http://www.æk.eus/blogak/uribekosta/>
www.facebook.com/uribekostako.æk

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: maila egiaztatuz gero.

UDAL GUZTIETAN

Veva Linaza *Rondó* liburua

«Pintura zer den eta nola mugitzen den hausnartzeko tresna da bideoa»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Pintura, paisaia eta niaren kontzeptuez hausnartu du Veva Linaza artista algortarrak bere azkenengo *Rondó* liburuan. 2010 eta 2019 urteen artean egindako lau obra independenteri osotasuna eman die, argazkiak, bideoak, margolanak eta testuak erabiliz.

Rondón paisaien margolanak dira nagusi. Naturan bertan margotu dituzu? Batzuk aire zabalean bertan egin ditut, eta beste batzuk estudioan. 2010ean ez nuen estudio finkorik, horregatik, zuhaitzen azpian margotzen hasi nintzen. Dena hasi zen zuhaitz pean eta horien itzalekin jolasten. Itzalaren mugimendua pintzelarekin jarraitzen nuen, eta hori pixkanaka-pixkanaka abstraktu bihurtzen hasi zen. «Zurrunbilo» horretan sartu nintzen eta, 2013an, BilbaoArteren beka bat lortu nuen lan horrekin jarraitzeko. Getxo Kulturak liburu hau argitaratzen lagundu dit ere.

Zein garrantzi du bideoak zure obran? Zuhaitz pean ikusten nituen itzal horiek estudioa eraman behar nituen. Hala, bideoak grabatzen nituen basoan eta, gero, estudioan proiektatzen nituen oihal baten gainean. Ondoren, horiek margotzen nituen bideoaren mugimenduarekin batera. Itzal edo argi naturalaren mugimendua bideoaren mugimendugatik aldatu nuen. Pintura zer den pentsatzeko eta nola mugitzen den hausnartzeko tresna oso baliagarria da bideoa.



Irudiak nagusi

Rondó liburua Bilboko ANTI liburutegian dago salgai. Elebiduna da: leloa euskaraz dago eta hausnarketak gaztelaniaz. Batez ere, «lau pieza artistikoren prozesuaren irudiak ditu oinarri», azaldu du Linazak. Gainera, obraren bideoak, vevalinaza.com webgunean daude ikusgai. Eskuratu liburuak zukere.hiruka.eus webgunean ikusgai dugun zozketan!

Liburuan, argazkiez aparte, testuak ere daude. Bai. Urte horietan egindako lanak berrikusi eta autokritika bat egiten dut. Paisaiaren inguruko testuak egiten hasi nintzen eta kontzeptu horiek ere berriro aztertzen, baina, orain, hitzetatik abiatuta.

Nolako izan da testu horiek idazteko prozesua? Korapilatsua, proiektuak independenteak izan arren, lotura indartsua dutelako. Egitura lortzea oso zaila izan zen. Egun batean, irratiko programa batean, rondo musikari buruz hitz egiten hasi ziren. Rondo musika errepikapena da: leloa errepikatzen da. Hala, liburuari egitura hori erantsi nion. Leloa, kasu honetan, nik asmatutako txango bat da, erromantizismoko koadro batzuekin ageri dena. Bertan, fikziozko pertsonaia batzuk daude, eta, haiek ere, pintura, paisaia eta niaren kontzeptuak aztertzen dituzte elkarriketaren bidez. Txango horrek liburu osoa zeharkatzen du.

Obra horiek aspaldikoak dira. Zertan zabilta gaur egun? Duela bi urte Lanzaroteko (Kanaria Uharteak) egoitza artistiko batean hasitako *plein air* proiektuan nabil. Bertako paisaiak margotzen ibili nintzen, eta, bueltatzean, horretan ere aritu naiz: hemengo mendietan eta, orain, hondartzetan ere. Getxo Kulturak beste laguntza bat eman dit. Hala, koadro hauek margotzeko kanpoaldean hasten naiz, baina, gero, estudioan bukatzen dut. Izan ere, olioarekin nabil margotzen, eta 4 x 2 metroko koadro handiak dira. ◀

MARTXAN EUSKARAZ

MASTITXU-n

%100
aurrez aurre

MAILA GUZTIAK
HABEren mailak egiaztatzeko ikastarook

10-8-5-4
ordu astean

HABEren dirulaguntza bereziak C1eko 16-18 urteko ikasleentzat
Subvenciones especiales de HABE para alumnos de C1 de 16-18 años

BOGA
autoikaskuntza

HABEren dirulaguntza bereziak A1eko ikasleentzat
Subvenciones especiales de HABE para alumnos de A1

BEREZIAK

Asteazkenetan 14:15-16:00	Gurasoak Astelehenerlan 14:00-15:45
Merkatari eta ostalarientzat Asteazkenetan 14:15-16:00	Hurreratu bizkaierara Asteartetan 20:00-21:45
Euskara zuek hurbil ostegunetan 20:00-21:45	

Apurka-apurka BEZEROEKIN EUSKARAZ !

Seme-alaben EUSKARALAGUN !

EUSKARA ZUGANDIK HURBIL
EUSKARA, DE CERCA

Hartu eta zabaldu EUSKARAREN kolorea!

MASTITXU EUDAL USKALTEGIA

Iparragirre etorbidea, 78
48940 - LEIOA

euskaltegi@leioa.eus
euskaltegileioa.com

t 94 464 00 02

HABEkin diruz lagundua

Basilio Astulez Kantu koraleko irakaslea eta zuzendaria

«Musikan dabiltzan pertsona guztiek kantatu beharko luketela uste dut»

Bere bizitza «entsegu baten modukoa» dela dio Basilio Astulez koru-zuzendariak eta irakasleak. Ikasturte berria prestatzen dagoela, Leioa Kantika Koralegatik eta bere lanagatik galdetu diogu.

ANDER ZARRAGA ▶

Beste askoren artean, Basilio Astulez Leioa Kantika Koraleko, San Juan Bautista abesbatzako eta Bokalia taldeko zuzendaria eta koru-zuzendari-zako irakaslea da Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian. Horrez gain, bere ibilbidean hainbat sari jaso ditu Astulezek, bai zuzendari gisa, bai abesbatza-lehiaketa garrantzitsuetan ere.

Kantika 2000 urtean sortu zuen, eta urteotan bertatik pasatu diren 10 eta 20 urte arteko gazteak profesionalak ez izan arren, «eskatzen dizkiegun konpromisoa eta emaitzak talde profesional askorenak baino handiagoak izan daitezke», aitortu du zuzendariak. Berbarako, uda honetan, Taipein (Taiwan) egon dira, eta, lehenago, hainbat jaialditan aritu dira; adibidez, 2014an, Seulen (Hego Korea) eta, 2023an, Istanbulen (Turkia) egin zen World Symposium on Choral Music jaialdian parte hartu zuten; «hori abesbatzen Joko Olinpikoetara joatearen parekoa da».

Horren guztiaren atzean izugarritzko lana dagoela dio Astulezek, bai gazteei exijitzen dietena, baita zuzendari moduan egiten duenagatik ere: «Batuetan, emailak kortxeak baino gehiago dira, eta musikari bezala, nahiz eta musika maitatu, eguneroko gestioari ere hainbat ordu dedikatu behar dizkiot». Hala ere, prestakuntza-lana entseguak bezain garrantzitsuak direla dio: «Zenbat eta kudeaketa hobeagoa izan, orduan eta emaitza hobeagoak lortzen dira ohol-tza gainean».

KORUA BAT BAINO GEHIAGO. Zuzendari moduan, bere lana musikatik eta antolakuntzatik harago dagoela gaineratu du. Abeslariak eskatzen diena eskatu ahal izateko, ikuspuntu soziala, hezkuntzakoa, psikologikoa edo lidergoa ere lantzen dituztela dio: «Taipein, 14 egun eman ditugu, eta pentsatu nahi dut ume horien esperientzia oso polita izan dela, bai-



Leioa Kantika Korala 10 eta 18 urte arteko 40 neska-mutirik osatzen dute. BASILIO ASTULEZ

«Ahotsa da gure barruan daukagun instrumentu musikal bakarra, eta pertsona guztiok kantatzen dugu, ez dago hori baino espresio artistiko sakonagorik; pentsatzen dut hori taldean egitea jarduerarik indartsuena eta osasuntsuena dela»

«Beti pentsatzen da haur abesbatza nagusien harrobia bezalako bat dela. Ni horren aurka egiten saiatzen naiz, beraiek uste dutena baino askoz gehiago baitakite»

na oso gogorra ere bai: han eta hemen kantatu, hotelera joan, ahotsa zaindu... Emaitza profesionalak eskatzen dizkiegu, baina ezin dugu ahaztu umeak direla».

Hala ere, koruan egoteak duen altxorrik ederrena korukideak direla dio: «Ni beti saiatzen naiz taldea babes-eremua izan dadin; kantatzen daudenean, 10 edo 18 urteko neska-mutirik artean errespetua eta konplizitate sortzen da. Hori ez da kanpoan ematen, eta oso berezia eta osasuntsua dela uste dut». Horrez gain, zuzendariak gaur egungo gizarteari egokitutako diziplina-kontzeptu baten aldekoa da: «Lehen, agian baliagarria zen egunero ordubete pianoaren aurrean ematea, etxean askok hori ikusten zutelako, baina gizartea aldatu egin da eta horri ere buelta bat eman behar zaio».

DENBORALDI BERRIA. Kurtso berria hasteagaz batera, ikasle nagusienek abesbatza utzi dute eta 10 urte inguruko abeslari berriak sartu dira Kantikan. Zuzendariak aitortu du berarentzako hori erronka bat dela, laster hasiko baitituzte emanaldiak, baina dio bere lana ere badela umeek daukaten sormen hori bideratzea eta beraien proposamenak programatzeari. Besteak beste, urrian, Bordelera joango dira; azaroan, Lituaniara; abenduan, Bartzelonara; maiatzean, Suitzara... ◀



Sartu
hiruka.eus
atarian eta
irakurri
elkarriketa
osorik.

Kultur erakundeak zaindu

JONDALAR SOTA Historialaria



Herri batean kultur elkarte historiko bat edukitzea pribilegio handia da. Plasentia de Butron Museoaren kasuan, hiribilduko bizilagunek sortutako fundazioa da, bisitari eta interesdun guztiei Plentziak duen historia aberatsa erakusteko.

Udan, hainbat jarduera egiten dira, adibidez, Historia Jardunaldiak. Herri mailako hainbat hitzaldi historikok osatzen duten ekitaldiak oso harrera ona izan du aurten eta, nahiz eta bertaratutako gehienak hiribilduko bizilagunak izan, beti hurbiltzen da norbait Bilbotik eta inguruko herrietatik hitzaldietako gaiekin interesatuta.

Beste hitzordu nabarmen bat da Museoa Kalera. Museoaren aurreko kalean haurrentzako tailerrak antolatzen dira: egun batez arkeologo bihurtu, altxor galdua bilatu eta antzinako ontzioletara joaten dira eskalan beren ontzia eraikitzeko. Urtero, 100 haur baino gehiagok gozatzen dituzte jarduera horiek.

Gainera, udalerrri txiki batean halako elkarte bat izateak tokiko historia etengabe aztertzen, ikertzen, erakusten eta argitalpenak egiten aritzeko aukera ere ematen du. Horren ondorioz, gero eta bazkide eta boluntario gehiago ditugu museoan. Onarpen horri esker *Plasentia* aldizkaria ere daukagu, historia, arte eta zientzia lokaleko artikuluak biltzen dituena.

Galerna ostea

LIZAR BEGOÑA Idazlea



Batzuetan, atzeko atetik sartzen dira urtarook. Abuztuko galerna hark eta osteko zaparrak aurrestreinatu ziguna. Garajeak urez bete zituen euri-jasak, auzokideak kubo eta baldeekin lokalak husten ibili ziren distopia batean lez. Oraindik egun hartan hondatutako igogailu berria konpontzen dabil teknikaria. Batzuetan, tankera hori hartzen du udabuztanak, eta deabruki eskutik datorren lanera bueltak. Horrela agertzen da maiz, zapla!

«Kolpe zorririk jotzeko gogorik ez duen norbaiten arima daukat langile klaseko gorputz batean gordeta», zetorren idatzita @zaldieroaren irailaren 3ko zintan. «Goyaren *La maja vestidaren* remix bat» zen, irudigilearen hitzetan. Binetan tipo bat hondartzan tripaz gora etzanda marraztu zuen, garagardo lata baten parean. Eta, nago, nagikeriaren estampa hori oraindik ez dagoela lar ondo ikusia, nago lana aldarean duela gizarteak bizitzaren gainetik.

Hiru izenburu etorri zaizkit burura: Paul Lafargueren *Le droit à la paresse* (Alferkeriarako eskubidea), Sarah Jafferren *Work Won't Love You Back* (Lanak ez zaitu bueltan maitatuko) eta Jenny Odellen *How To Do Nothing* (Nola ez egin ezer). Ez dakit liburu hauetan erantzunik ote dagoen, baina ekuazioaren hurrenkera zein den asmatu ezinik nabil oraindik: Bizitzeko lan egin, edo lan egiteko bizi?

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zapore garratzagaz hasi duzu iraila: dena hankaz gora dago. Hala bada ere, pentsa ezin daitekeela okerrera joan. Hemendik, gora.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zaila da berriro ere egunerokotasunera moldatzea. Eman denbora zure buruari eta hasi astiro-astiro. Martxa hartuko duzu!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Nagi handia eman arren, kirolak orainean mantentzen laguntzen dizu. Kendu hautsa zure zapatilei eta hasi mugitzen!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ez galdu energia merezi ez duten pertsonakaz. Ez zara inoren psikologoa. Bakoitzak bere lan-keta propioa egin behar du lehenengo.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Urtarrilean baino, orain hasten da benetako etapa aldaketa. Lagungarria egingo zaizu helburu berriak zehaztea bide berri honetan.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ez dago denbora zehatz bat min egiten dizun horretaz sendatzeko. Hitz egin lagunakaz, egin kirola, deskantsatu. Ederto egiten ari zara.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Irailak sorpresa polit bat du zuretzako gordeta. Erne ibili, gutxien espero duzun momentuan zure eta lur geldituko zara.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Kexatzea ez da soluzioa, baina amorrua baretuko duzu. Ez gorde barruan erretzen zaituen hori, eta, ahal den guztietan, ekintzara pasatu.



Irartzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Uda osoa izerdi patsetan pasa duzu, beroak itota eta turistaren masifikazioaz nazkatuta. Lasai, bidean dago hainbeste gustuko duzun hotza!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Lagun sare ederra duzu, baina hori ez da berariaz mantenduko. Oporrak eta gero berreskuratu harremana mosto bat hartzen!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Urteak daramatzazu proiektu pertsonal horri ekin guran. Utzi beldurrak alde batera eta has zaitetz. Zure senak badaki merezi duela.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zaila egiten zaizu baikor mantentzea. Onartu zure umore txarra, tristura edo nagitasuna. Onarpenera eta gero dator aldaketa.



2024 IRAILAK 20-22

SOPELA KOSTA FEST

www.sopelakostafest.eus



IRAILAK 20, BARIKUA

- *Chasing Pelets* eta *Olas de cambio* dokumentalen proiektzioak eta solasaldia.
- Egokitutako surf ikastaroa.
- *Birakolore* txotxongiloen ikuskizuna.

**ARIZONA BABY • JANUS LESTER
ACID TONGUE • VULCANIZADAS**

IRAILAK 21, ZAPATUA

- Surf & Skate Market & Kirol 360º: Surf eta skate produktuen erakusketa eta errealtate birtualeko betaurrekoen bidez esperientzia bizitzeko aukera.
- Surf, kayak-surf eta waveski txapelketak.
- Flyschera bisita gidatua.
- Tailerrak: skate, herazko eskulturak, kauri eskumuturrak, bikingoen ipar-orratza...

**MARUJA LIMÓN • BELE
THE CHERRY BOPPERS MEET
PATRICIA RECKLESS
TXOPET • GINGER**

IRAILAK 22, DOMEKUA

- Surf, kayak-surf eta waveski txapelketako finalak.
- Orientazio-proba.
- Itsas-zaborraren bilketa, Barinatxe hondartzan.
- Bisita gidatua Eratzun Berdea ezagutzeko.
- Sopelako IV. Argazki Lehiaketako sari-banaketa.

Nabarmenak

Sopela Kosta Fest adin eta publiko guztiei zuzendutako jaialdia da, naturan, musikan eta surfean oinarrituta, Sopelako inguruneaz eta ondasun naturalez gozatzeko aukera paregabea eskaintzen duena.

Beste behin, surfaz eta surfaren bitartez gozatzeko aukera bikaina egongo da asteakaburuetan horretan egingo dituzten jarduerakaz: EHSF Surf Txapelketa, kayak-surf, surf egokitua... Baina ez da kirol bakarria izango: kalistenia, parkourra, slackline-a, tai-jia edo skateboard bezalako modalitateak ere praktikatzeko aukera egongo da.

Kirola ez ezik, bestelako ikastaroak, tailerrak, bisita gidatuak eta argazki-lehiaketa eta -erakusketa ere egongo dira.

Puntako musika taldeek borobilduko dituzte egun zoragarri horiek: Maruja Limón, Arizona Baby, Bele, Janus Lester, Acid Tongue, The Cherry Boppers Meet, Patricia Reckless, Txopet, Vulcanizadas eta Ginger.

Izen-ematea zabalik egongo da irailaren 17ra arte, eta informazio guztia [sopelakostafest.eus](http://www.sopelakostafest.eus) atarian eta jaialdiaren sare sozialetan egongo da eskuragarri.

info+: www.sopelakostafest.eus

Sokatira Munduko Txapelketa

Goiherri Sokatira Taldea, munduko txapeldun 23 urtez azpikoen mistoan



Goiherriko tiralariak. © EITB

Guztira hiru domina erdietsi dituzte Erandioko tiralariak irailaren lehenengo aste-akabuan Mannheim (Alemania) hirian egin zen Lur Gaineko Sokatirako Munduko Txapelketan. Kluben arteko lehiaketan, Goiherrik zilarrezko domina bi eskuratu zituen Mundialeko lehen egunean: bata, gizonezkoetan, 560 kiloetan; eta emakumezkoetan bestea, 23 urtez azpiko lehian, 500 kiloetan. Urrea bigarren egunean heldu zen, 23 urtez azpikoen 560 kiloko lehiaketa mistoan; hala, Munduko txapela jantzi zuten erandioztarrek. Selekzioagaz ere joko bikaina egin zuten, eta lau domina poltsikoratu zituzten: urrezko bat eta brontzezko hiru. ◀

Herri Kirolak Euskal Pentatloia

Beñat Amade, zazpigarren Azpeitiko Pentatloian

Irailaren 7an, zapatuan, jokatu zuten VII. Euskal Pentatloia kanporaketa, Azpeitiko zezen plazan. Horretan aritu zen Beñat Amade algortarra, beste 11 kirolarigaz batera. Horien artean, Izeta VI.a zen faborito nagusia, eta aurreikuspenak bete zituen marka guztiak hautsita: 11 minutu eta zazpi segundo behar izan zituen lan guztiak amaitzeko, bere marka 41 segundoan hobetuta. Algortarrak, berriz, 14 minutu eta 19 segundo behar izan zituen, finalera sailkatzeko 44 segundora. «Sei lehenengok sekulako markak egin dituzte. Nire kasuan, fisikoki ondo nengoen, aizkoran asko hobetuta, baina, tamalez, ezin izan naiz sailkatu. Aurten maila handia egon da», adierazi du Amadek. ◀

Olinpiar eta Paralinpiar Jokoak Uribekostarrak

Dominarik gabe, baina bost diploma poltsikoratuta



Asier Garcia getxoztarra gurpildun aulkiko saskibaloijokalaria. BASQUE TEAM

Kiolaren hitzordurik garrantzitsuenak bizi izan ditugu hilabeteotan Parisen. Uribe Kostako sei kirolari aritu ziren Olinpiar Jokoetan, uztailaren 26tik abuztuaren 11ra; eta beste hiru kirolari Paralinpiar Jokoetan, abuztuaren 28tik irailaren 8ra. Denek zituzten aukerak dominaren bat edo beste poltsikoratzeko, baina, azkenean, ezinezkoa izan dute. Guztira, bost diploma olinpiko eta paralinpiko irabazi dituzte, askotariko modalitateetan.

Olinpiar Jokoetan, Esther Briz Raspas arraun taldeko arraunlariak diploma eskuratu du Aina Cid ki-deagaz batera, zazpigarren postuan amaituta lemazainik gabeko bikoan. Jon Rahm golf-jokalaria barrikoztarra faboritoetako bat zen dominaren bat janzteko; Tokioko Jokoetan kale egin behar izan ostean, indartsu ekin zion estreinaldi olinpikoari, baina bosgarren amaitu zuen abentura. Jose Maria *Chefo* Basterra eta Rafa Vilallonga getxoztarrak brontzezko

domina irabazteko zorian egon ziren Espainiako belar hockeyko selekzioagaz, baina finalerdiak galdu zituzten Indiaren kontra. Paralinpiar Jokoetan, berriz, gurpildun aulkiko saskibaloijokalaria Asier Garcia getxoztarrak irabazi du diploma olinpikoa, Jokoak zazpigarren postuan amaituta Espainiako selekzioagaz.

Uribe Kostako bost kirolari horiez gainera, eskualdeko beste lau gizon-emakume aritu dira Parisen historia egin guran. Tokioko jokoetan ere aritu zen Virginia Diaz arraunlari getxoztarrak hamabigarren postuan amaitu zuen banakako sculleko txapelketan. Getxoko Xabier Lopez de Arostegi saskibaloijokalaria ezin izan zuen Jokoetan aurre egin, Espainiako selekzioa Kanadaren kontra galdu ostean kanporatu baitzuten. Paralinpiar Jokoetan, Mikel Erdozain igerilari leioaztarrak 12. postuan amaitu zituen bere lehenengo Jokoak, eta Higinio Rivero piraguistak bederatzigarren, horrek bere bigarren Jokoetan. ◀

Jagoba Madariaga Gaubeka Pala jokalaria eta entrenatzailea

«Aurten, kosta jaku txikiak palan hastea»

Irailan, pala frogatzeko saio bat egin dute, Armintzan, 6 urteko umeei zuzenduta. Jagoba Madariaga Gaubeka entrenatzaileak dioenez, xedea da umeak kirolera hurbiltzea.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Abuztu honetan, lehendabiziko pala campusa egiteko intentzioa zuen Armintza Pilota Kirol Elkarteak. Alabaina, adin ezberdinetako sei ume apuntatu ziren soilik, eta, maila desberdineko haurrak zirenez, bertan behera uztea erabaki zuten. Jagoba Madariaga Gaubeka pala entrenatzailearen esanetan, aurten oso haur txiki gutxi hasi dira palan jokatzeko eta, umeak erakartzeko asmoagaz, saio bat antolatu zuten irailaren 5ean. «Betidanik Armintzan ume txikiak frontoian egon dira. Baina, azkenengo urte erdian, kostatu jaku txikiak hastea, ez dakigu zergatik».

Jardunaldi horretan, haurrak palara hurbildu gura izan zituzten jolas eta dinamika ezberdinakaz. Madariagak azaldu duenez, saio horretatik espero dute 6 urteko umeen taldea sortzea, baina haur nahikok izena ematen ez badute, hilabetero pala jardunaldiak egiten jarraituko dituzte herrian. Modu horretan, umeak animatu eta pala sustatu gura dute belaunaldi berrien artean.

Ume txikien dinamizatzaile eta entrenatzailea da Madariaga, baina herrian pala profesionaleko beste bi jokalaria ere dituzte: Iñaki Urrutia eta Esteban Gaubeka. Horiek ere, noizbehinka, umeak palan jolasten ikustera hurbiltzen dira. Nagusien taldeen entrenatzaile gisa, Armintza Pilota Kirol Elkarteako Ekain Mendizabal aritzen da.

Txikien taldean ez bezala, Madariagak adierazi du aurten inoiz baino haur gehiago apuntatu direla beste taldeetan. «Beste adinekoak badekoguz taldeak, baina justu 6 urtekoena, ez dau. Hiru edo holan dauz apuntatu nahi direzela». Arraroa egiten zaie hutsune hori egotea, are gehiago, doako ekintza den: «Nik uste dot gurasoen nagia-edo dela.



Armintza Pilota Kirol Elkarteako umeen entrenatzailea da Madariaga. HODEI TORRES

Herri-izaera

«Frontoia herriko erdigunean dau eta herriko ume guztiak bertatik pasatzen gara noizbait. Ume guztiok pala probatzen dogu behintzat urte batez. Herrian jendeak afizio hori deko: ez dau gehiagorik, bakarrik dau frontoia».



Erosoagoa dala umeek beste gauza batzuk egitea. Haurrak kirola egin dezan sustatu beharrean, mugikor edo tablet bat emon eta lasai egotea. Haur pilo dauz herrian ez direzenak apuntatzen», deitoratu du.

Hala, argi adierazi du Armintzan pala «guztie» dela: «Frontoia herriko erdigunean dau eta herriko ume guztiak bertatik pasatzen gara noizbait. Ume guztiok pala probatzen dogu behintzat urte batez. Herrian jendeak afizio hori deko eta galdetzen dotzu ze in dozun partidutan: ez dau gehiagorik, bakarrik dau frontoia». Halaber, hausnartu du pala ez bazen, umeek lehen futbola egiten zutela, baina orain, «ez bata, ez bestea».

Halaber, orain mutil asko daude frontoian, asko ere jaio direlako azken urteetan Armintzan: «Neskak orain bakarrik dekoguz bi edo. Asko hasi ziren, baina futbolera jun direz gehienak». Horregatik, Armintza Pilota Kirol Elkarteak lanean jarraituko du umeen artean pala sustatzeko: «Jendea animatu nahi dugu probatzera, probatzen baldin badabe badakigulako gero geldituko direzela». ◀

Udako abestia zein izan da zuretzat?



VIENA DA COSTA
PLENTZIA

Kaparrak-en *Bollikau* abestia da nire udako abestia, dudarik gabe. Erritmoa eta doinua asko gustoko ditut, oso polita da. Spotifyn eta irratian batez ere asko entzun dut. Hala eta guztiz ere, oraindik ez naiz horretaz nekatu, eta benetan uste dut oraindik denbora dagoela udaz eta abestiaz gozatzeko.



JULENE SEGARRA
PLENTZIA

Nire udako abestia *Si antes te hubiera conocido* da, Karol G abeslariarena. Oso azkar bilakatu da famatua mundu osoan eta leku guztietan entzuten da. Onartu behar dut abestiaz apur bat nekatu naizela, baina hala ere, gustoko dut. Horregatik, ez zait inporta oraindik jaietan entzutea.



JONE AGUINAGA
PLENTZIA

Dударik gabe nire udako abestia da *Si antes te hubiera conocido*, Karol G-rena. Udako egun guztietan entzun dugu abestia, baita jai eta kontzertu guztietan ere. Asko gustoko dugu kuadrillan, eta, jartzen dutenean, asko motibatzen gara. Lagun guztiok batera abesten dugu jartzen duten bakoitzean.



ANE ERANDIO
ERANDIO

Si antes te hubiera conocido, Karol G-rena. Erritmoagatik uste dut udako abestia dela eta, gainera, leku guztietan jartzen dute. Kuadrillarekin Algarvera joan naiz udako bidaia egitera, Portugalera, eta bertan behin eta berriro entzun genuen. Oraindik disfrutatzen dugu, ez gara abestiaz nekatu.



IORITZ RODRIGUEZ
ERANDIO

Nire ustez, udako abestia *La Potra Salvaje* izan da, zalantzarik gabe. Batez ere, Bilboko eta Astrabuduko jaietan entzun dugu, bertako txosnaguneetan. Egia da hainbestetan entzun ostean pixka bat nekatuta gaudela abestiaz, baina, hala ere, oraindik polita iruditzen zaigu kantatzeko eta abesteko.



MAITE UNIBASO
ERANDIO

Nire ustez *Hay Lupita*-ren abestia izan da uda honetako abestia. Plentziako Madalena Egunean gogoan dut asko dantzatu genuela. Bertan, *Hay Lupita* eta *Potra Salvaje* abestiak denbora osoan jarri zituzten. Hainbeste jai eta udaren ostean, apur bat nekatuta nago abesti horietaz, egia esan.



GARAZI DELGADO
ERANDIO

Potra Salvajeren abestia asko-asko entzun dut uda honetan, guay dago. Erandioko Kukularrako jaietan asko dantzatu nuen. Jendea abesti hori behin eta berriro eskatzen egon zen. Top izan zen. Mozkortuta oraindik dantzatu ahal ditut, baina niri beste abesti mota batzuk entzutea gustatuko litzaidake.



IZARO INUNCIAGA
ERANDIO

Dударik gabe, nire udako abestia *Hay Lupita* da, Lomiiel abeslariarena. Jai askotan entzun dut eta oso abesti martxosoa da. Ez naiz nekatu eta uste dut ez naizela nekatuko. Horregatik, espero dut jaietan oraindik ere asko entzutea. Batez ere, DJetan asko entzun dudana abestia da.



Koldo Garcia, Goien kooperatibako ingeniaria.

«Uribe Kostan probatu nahi dugun autokontsumo partekatuko eredu berri bat aztertzen ari gara»

Ezagutzen al duzu Goien? Eta zer egiten duen? Bada, Koldo Garcia (Gorliz, 1989) ingeniariak Goien kooperatiba zer den eta Uribe Kostan dituen asmoak azaldu dizkigu hurrengo lerrootan.

Zer da Goien? Goien 2012an sortutako kontsumitzaile kooperatiba bat da, irabazi asmorik gabekoa. Bere helburua da, argindar % 100 berriztagarrien eskaera areagotuz, egungo eredu energetikoa aldatzea, kontsumitzaileok ardura hartuz eredu horizontalizatzea nolobait. Merkaturatzeaz gain, argindarra sortzeko proiektuak ere bultzatzen ditugu, aholkularitza lanak egin, herriz herri energia komunitateak sustatzen lagundu...

Kooperatiba izanda, zein abantaila lortzen ditu bazkideak? Bere argindar fakturak Goien kooperatibaren bidez ordaindu ditzake, oligopolioko ohiko konpainiei ordaindu beharrean. Era berean, beharrezko argindar berriztagarri hori sortzen lagundu dezake sorkuntza-proiektuetan ekarpenak eginez eta trukean interesak jasoz, Bermeoko Eleizalde ikastolan egin genuena kasu. Eskaintzen dugun arreta eta aholkularitza zerbitzuak gure beste indarguneetako bat dira, bertako lankide batek artatuko zaitu beti, bai telefonoz zein Bilboko Santimami zumarkalean dugun bulegoan aurrez aurre. Bazkideak ziurtasuna izango du inor ez dela oinarrizko eta beharrezko ondasun batengatik bere diruarekin aberasten ari.

Gaur egun asko berba egiten da autokontsumo-instalazioez, horiek ere alternatiba dira oligopoliari eta energia fosilei? Bai,

eta ez. Autokontsumoa eta, oro har, argindar-sorkuntza puntu txiki eta deszentralizatuak onak dira trantsizio energetiko eta sozialerako, energiaren erabilera demokratizatzen da eta prezioak jaitea lortzen da. Kontsumo ertaina dutenek, nire ustez, instalazio propioa izan edo autokontsumo kolektibo baten parte hartu beharko lukete, adibidez, eraikin publikoek, eskolek, enpresa ertainek... Guk, autokontsumo instalazio bat egin aurretik, bazkidea aholkatzen dugu, bere kontsumoa txikia bada, agian ez duelako merezi norberarentzako instalazio bat edukitzeak.

Fotovoltaiko bidezko autokontsumoa da gaur egun energia lortzeko modurik erraz eta merkeena, baina ez da nahikoa. Erronka handiak eta zailak ditugu alternatibak aurkitzeko.

Kontsumo txikia dutenek zein beste alternatiba dute orduan? Autokontsumo-instalazio indibidualen aurrean, beste aukera da herritarren artean instalazioa partekatzea. Instalazio bakarra egin eta kontsumitzaile batek baino gehiagok etekina atera dezakete handik. Orain, adibidez, Uribe Kostan probatu nahi dugun autokontsumo partekatuko eredu berri bat aztertzen ari gara. Eraikin bateko teilatuan instalazio bat jartzea da asmoa, eraikin horrek teilatua soberan duenez, behar duena baino instalazio handiagoa egingo guke eta inguruko bizilagunek ere bertatik autokontsumitzerik izango lukete.

Nola babestu dezakegu proiektua? Erraz: kooperatiban bazkituz, argindar kontratuak Goienerrera pasatuz eta sorkuntza-proiektuak babesteko epea zabaltzerakoan ekarpenak eginez. Gainera, nahi dutenek boluntario gisa ere lagundu dezakete.

Ana Arsuaga Abeslaria

«Agertokirik onena da jendea guztiz gozaten ikusten dudan hori»

TESTUA: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIA: ANA ARSUAGA ►

Defini ezazu zeure burua berba bitan. Neska bat naiz, besterik ez.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera? Nik uste antzezle txarra naizela, beraz, abeslaria protagonista den batean, abesten bakarrik, kar kar.

Badakazu haurtzaroko oroitzapen bat? Nire ahizpa eta biok jolasten, han eta hemen.

Badakazu ohitura txarren bat? Gauza asko gerorako uztea.

Eta aitortu dezakezun bizioren bat? Esnatu eta berehala telefono mugikorra begiratzea.

Zein da zure ametsetako bat? Musikaria izatez bizitzea.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera? Nire lagunak eta janari eta edari asko.

Gorroto duzun topikoa? Bakoitzak merezi duena daukala.

Zer hutsegite ez zenuke sekula barkatzen? Manipulazio sakonak.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik? Mendiak; ederrak direlako eta bake handia dagoelako horietan.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena? Eszenatokia ateratzea.

Zerk ematen dizu beldurra? Prekarietateak.

Oihukatu duzun azken aldia? Aste honetan, seguru aski.

Parrandarik politenak non? Tolosan.

Zertan ez zenuke jardun gura? Lan fisiko gogorra duten lanpostuetan.

Eguna ala gaua? Zergatik? Eguna, argiagoa delako.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat? Jendeak bat-batean oparitxoak ekartzea.

Kontzertuak emateko lekurik onena? Lekua baina, publiko kontzertua guztiz gozaten ikusten dudanean, hori da onena, berdin zait non. ◀



Laburrean. Musikari eta margolari gipuzkoarra da Ana Arsuaga (Tolosa, 1994). Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon, baita Pintura Masterra egin ere. Ordutik, pintatzen eta musika jotzen dihardu. Serpiente taldeko kidea izan da 2020ra arte, eta bidean disko bi argitaratu zituen. 2019an, Verde Prato bakarkako proiektua abiatu zuen, euskal folklorea eta teknologia garaikidea nahastuz. 2021ean bere lehenengo diskoa kaleratu zuen, *Kondaira eder hura* izenekoa. Ordutik, beste hainbat lan argitaratu ditu bakarka.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Artea antzezlan

Sarrera bi zozkatuko ditugu urriaren 10ean, eguenean, Muxikebarrin taularatuko duten *Artea* antzezlan ikusteko. Saioa 19:30ean hasiko da, galduko duzu?



Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 6a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa

Ibaizabalen liburu aparta

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, *Astrojokoak taldearen magia* izeneko liburu liluragarria zozkatuko dugu, 8 urtetik gorako umeei zuzendutakoa. Ez galdu aukera eta parte hartu!



Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 6a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa

Ikastaroak Sekula Estudion!

Hiru ikastaro monografiko ditugu zozkagai Sekula Estudion disfrutatu ahal izateko. Artea eta diseinuagaz lotutako alorrak landuko dira, eta ez da inolako esperientziarik behar apuntatzeko!



Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 6a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



MATRIKULATU GETXOKO EUSKALTEGIETAN!

IYA PUEDES MATRICULARTE EN LOS EUSKALTEGIS DE GETXO!



NIK ESAN NIZUN:
BERBALAGUNARA
ZATOZEN LEHENENGO
EGUNA DA?

ETA NIK ERANTZUN:
BAI, BAINA ZU BAZATOZ,
EGUNERO ETORRIKO NAIZ.
ETA ORDUTIK LAU URTEZ ARI
GARA BERBALAGUNTZAN.

KONTUZ!
EH! BEHEKOA,
KONTUZ! KENDU
ZAITEZ!

KLANK

ZENBAT
EULI!

CREO QUE NO HA
ENTENDIDO, LE VOY A DECIR
QUE PREGUNTE EN EL EUSKALTEGI
SOBRE LAS CLASES DE A1, QUE
TIENEN DESCUENTOS
ESPECIALES.

PRIMERAN AMA!
EUSKARAZ ARI ZARA,
BAINA EURI DA, EZ
EULI!

ESTE AÑO, SÍ O SÍ,
ME APUNTO AL
EUSKALTEGI PARA
AYUDARLE MEJOR
CON LOS DEBERES.

POK

AURTEN C1 EGINGO
DUT EUSKALTEGIAN, EA
ABESTI HAU HOBETO
ULERTZEN DUDAN!

♪ Lau teilatatu gainean,
ilargia erdian eta zu
goruntz begira...

INTERESANTE...
ASÍ QUE LAGUN
SIGNIFICA PERRO.

GETXONEGIN JATETXEA

LAGUN!

EUSKARAZ DAKIEN
ZERBITZARIA BEHAR
DUGU

DIRULAGUNTZAK
SUBBENCIONES

EUSKALTEGIA

C1
16-18 urteko gazteentzat
DESKONTU BEREZIAK

A1
Euskera desde cero
DESCUENTOS
ESPECIALES

MATRIKULA
IRAILEAN

MATRÍCULA EN
SEPTIEMBRE



WWW.GETXO.EUS/EUSKARA